


ikerlan

MEMBER OF BASQUE RESEARCH
& TECHNOLOGY ALLIANCE



Informazio ez- finantzarioaren egoera 2025

Edukien aurkibidea

0. SARRERA	3
1. NEGOZIO EREDUA	5
Sozietateak eta produktuak	5
Gobernantzaren egitura eta osaera	7
Bezeroak eta merkatuak	8
Aliantzak eta lankidetzak estrategikoak	11
Helburuak eta estrategiak	12
Inguruaren ikuspegia	14
Eraginak, arriskuak eta aukerak	15
Produktuen eta zerbitzuen kalitatea	16
Enpresa bezeroen beharretara egokitzea	17
Berrikuntza	18
Informazioaren pribatutasuna eta konfidentzialtasuna	19
2. INGURUMEN-GAIEI BURUZKO INFORMAZIOA	20
Ingurumen-kudeaketa	20
Klima aldaketa eta beste kutsadura mota batzuk	24
Ekonomia zirkularra eta hondakinen prebentzioa eta kudeaketa	24
Baliabideen erabilera jasangarria	25
3. LANGILEEI BURUZKO INFORMAZIOA	26
Enplegua	27
Lanaren antolaketa	34
Laneko osasuna eta segurtasuna	35
Harreman sozialak	37
Formakuntza	37
Berdintasuna eta diskriminaziorik eza	38
Irisgarritasuna	39
4. GIZA ESKUBIDEEN ERRESPECTUARI BURUZKO INFORMAZIOA	40
5. USTELKERIAREN, EROSKERIAREN ETA KAPITAL-ZURITZEAREN AURKAKO BORROKARI BURUZKO INFORMAZIOA	41
Etika, osotasuna eta enpresa-jokabidea	41
Arrisku penalak prebenitzeko eta betetzeko sistema	41
Emitzak eta gertakariak eza	41
Araudia betetzea eta zehapenak	41
6. SOZIETATEARI BURUZKO INFORMAZIOA	42
Jarduerak gizartean duen eragina	42
Informazio fiskala	43
7. GRI EDUKIEN AURKIBIDEA	44



0. Sarrera

Txosten honetan, 2025eko ekitaldiko informazio ez-finantzarioari buruzko gaiak sartzen dira, 2018ko abenduaren 28ko 11/2018 Legearen bidez indarrean dagoen legedian jasotzen den bezala.

GRI Standard-en (*Global Reporting Initiative*) jasagarritasun-memoriak egiteko gidako xedapenak hartu dira kontuan txostena egiteko. Hala, IKERLANek informazioa eman nahi du ingurumen-, gizarte-, langile- eta giza eskubideen alorreko gai garrantzitsuei buruz.

Abiapuntu gisa, materialtasun-azterketa bat egin da. Azterketa horrek gai ez-finantzarioetan interesa duten hainbat eragileren ikuspegia jasotzen du, eta IKERLANentzat duen garrantzia baloratzen du.

Material gisa kategorizatu dira erakundeak edo interes-talde guztiek garrantzitsutzat jo dituzten alderdiak. Hala, zehaztu da 11/2018 Legeak eskatzen dituen adierazle batzuk ez direla garrantzitsuak edo ez direla aplikagarriak IKERLANen kasuan.

2025eko ekitaldiko txosteneko gai materialak zehazteko erabilitako kontsulta-prozesuari dagokionez, alderdi interesdunek jasotako informazioa kontuan hartuta, eragile hauek parte hartu dute:

Barne-ikuspegia:

- Zuzendaritza Kontseilua.
- Batzorde Betearazlea.


Kanpoko-ikuspegia:

- Kontseilu Soziala, bazkideen izenean.
- Kontseilu Soziala, kontratatutako pertsonen izenean.
- Bezeroak, IKERLANekin elkartutako 10 enpresa adierazgarriren bidez.
- Korporazio eta Aliantzen, Administrazio Publikoen eta entitate laguntzaile teknologikoen ikuspuntua lortzeko, Zuzendaritza Nagusiaren, Antolakuntza eta Finantzen eta Etengabeko Hobekuntzaren partaidetza izan da.

Prozesu horren ondorioz, bederatzi alderdi ez-finantzario lortu dira. Hona hemen alderdi horiek,

garrantziaren arabera sailkatuta:

- Laneko segurtasuna eta osasuna (LAN-PRAKTIKAK).
- Etika / Ustelkeriaren aurkako eta zintzotasuna negozioetan (ETIKA ETA GOBERNU KORPORATIBOA).
- Berrikuntza (PRODUKTUAK ETA ZERBITZUAK).
- Informazioaren pribatutasuna eta konfidentzialtasuna (ETIKA ETA GOBERNU KORPORATIBOA).
- Diskriminaziorik eza (LAN-PRAKTIKAK).
- Produktuen eta zerbitzuen kalitatea (PRODUKTUAK ETA ZERBITZUAK).
- Aliantza eta lankidetzak estrategikoak (EKONOMIA).
- Enpresa bezeroen beharretara egokitzea (PRODUKTUAK ETA ZERBITZUAK).
- Enpleguaren kalitatea (LAN-PRAKTIKAK).



01. Negozio eredua

Zentro liderra ezagutzaren transferentzian eta enpresari balio lehiakorra ematen.

SOZIETATEAK ETA PRODUKTUAK

IKERLAN, S. Coop. (hemendik aurrera IKERLAN) zentro teknologiko liderra da ezagutza transferitzen eta enpresei balio lehiakorra ematen. I+G+Bn bikaintasuna lortzea du helburu, bezeroen beharretara etengabe egokituz eta enpresen errealitatetik hurbilduz. Bere misioari leial, 1974tik egunero lan egiten du bere bezeroei gero eta lehiakorragoak izateko aukera emango dieten soluzioak garatzeko. MONDRAGON Korporazioko kooperatiba bat da, Euskadiko lehen industria-taldea, Ezagutzaren Dibisioan kokatua, eta Basque Research and Technology Alliance-n (BRTA) parte hartzen du.

Teknologia-transferentziako jarduerak, ikerketa propioa eta espezializazio handiko langileen prestakuntza bateratzen dituen lankidetzaredu bakarrari esker, IKERLAN da gaur egun herrialdeko enpresa garrantzitsuen konfiantzazko partner teknologikoa. Bere helburua gauzatzeko, espezializazio teknologikoko hiru unitatetan egituratuta dago:

- DIG. Teknologia Digitalak eta Adimen Artifiziala.
- STZ. Sistema txertatuak eta Zibersegurtasuna
- EME. Enegia eta Mekatronika.

Egoitza nagusia Arrasaten (Gipuzkoa) dago, eta bigarren egoitza bat du Hernaniko (Gipuzkoa) Orona-Ideo espazioan, eta hirugarrena Bilboko Matikoko instalazioetan.

IKERLAN zentro dinamikoa eta mundura irekia da. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko agente akreditatua da, eta lankidetzare garrantzitsua du, Europako zentro eta unibertsitate ospetsuek osatua. Haiekin ikerketa-jarduerak eta ikertzaileak prestatzeko jarduerak egiten ditu.



MISIOA

Enpresen erronka teknologikoak konpontzea, haien lehiakortasuna hobetzeko eta Herriaren garapen ekonomiko eta sozial jasangarriari laguntzeko. Hori guztia lidergo teknologikoaren posiziotik eta bere *expertise* eremuetan gaitasun bereizgarriak erabiliz.

Plan Estrategikoan, IKERLANek inguruneari eman nahi dion balioa jasotzen da:

- “Gure xedea da gure ingurunearen garapen ekonomiko eta sozial jasangarriari laguntzea, enplegua eta aberastasuna sortuz.
- Horretarako, soluzio teknologikoak sortu eta enpresetara transferitzen ditugu, baita pertsona espezializatuak ere, lehiakortasuna hobetzeko, eta oinarri teknologikoko enpresa-ekimen berrietan parte hartzen dugu.
- Jarduera horiek guztiak gure printzipio eta balio kooperatiboekin koherentziaz egiten ditugu.”

Gure xedea gidari hartuta, IKERLANen helburua da: proiektu berezi, eraldatzaile eta erakargarri bat eraikitzen jarraitzea, kalitateko enplegu egonkorra, solidarioa, gure bezeroentzako balio lehiakorra eta gure inguruan aberastasuna sortzen jarraitzeko, gure jarduera estrategikoko 4 ardatzak indartuz eta egunez egun hobetzen jarraitzeko helburuarekin.

BISIOA

Zentro teknologikoa, irabazi asmorik gabeko kooperatiba, bere espezializazio-arloetan Europako lider gisa aitortua, giza talde bikain eta kohesionatuarekin, enpresei eta gizarteari balioa ematen diena.

1. LANKIDETZA

ELKARREKIN HOBEA DA

IKERLANen LANKIDETZA pertsona guztiek helburu komun batekin lan egitea da: balioa ematea eta erabakitzaileak izatea, bezeroei irtenbiderik onenak eskaintzeko. Horrela bakarrik bizi du teknologia IKERLANek, modu bakar eta berezi horretan, eta horrek ematen dio bere bokazioarekin bat datorren kalitate profesionala eta bizi-kalitatea.

2. EXPERTISE

TEKNOLOGOAK GARA

EXPERTISE IKERLANen profesionaltasuna, ezagutza eta baliabideak da. Aitzindaria da eta erreferente izan nahi du bere talentu, espezializazio eta gaitasunagatik.

3. BIZITASUNA

ZENTRO TEKNOLOGIKO BAT SASOIAN

IKERLANen BIZITASUNA beti sasoian egotea da: arintasunez mugitzeko gai izatea eta sentsazio aktiboa eta erabakitzailea transmititzea. Arreta eskaintzea eta punta-puntan egotea, formakuntza eta ekintzarako behar den prestakuntza izanda.

4. ERABILGARRITASUNA

ERRONKA ERREALETARAKO TEKNOLOGIA ERREALA

IKERLANek ERABILGARRITASUNA du helburu: kontua da konplexua dena erraz egitea, urrunago dagoena hurbil jartzea eta bezeroarentzako arazoa dena erabakigarri bihurtzea. Egiten, esaten eta eskaintzen duen guztiak praktikotasuna eta konponbidea transmititu behar ditu.



GOVERNANTZAREN EGITURA ETA OSAERA

SOZINETATE- ETA ZUZENDARITZA-ORGANOAK

IKERLAN bigarren mailako zerbitzu-kooperatiba gisa eratuta dago, irabazi-asmorik gabe, eta Eusko Legebiltzarrak onartutako Euskadiko Kooperatiben abenduaren 20ko 11/2019 Legearen printzipio eta xedapenei eta lege-aginduei lotuta dago, baita bere Estatutuei ere.

IKERLANeko ordezkariaren egitura eta kudeaketa kooperatiboa honako organo sozial eta zuzendaritza-organotan oinarritzen da:

- 1. Batzar Nagusia** bazkideen bilera da (erabiltzaileak, laguntzaileak, jardunean ez daudenak eta lanekoak), eta bere eskumenekoak diren gaiei buruz eztabaidatzeko eta erabakiak hartzeko eratzen da.
- 2. Kontseilu Errektorea** kide anitzeko organoa da, eta Kooperatibaren kudeaketa eta ordezkaritza hari dagozkio eskusiboki. Gainera, legeak edo Estatutuek Batzar Nagusiari edo beste organo sozial batzuei espresuki esleitzen ez dizkieten ahalmenak ditu. Lan-bazkideen bost ordezkari eta eskubide osoko bazkide erabiltzaileen hamar ordezkari osatzen dute.
- 3. Batzorde Betearazlea** Kontseilu Errektoreko lehendakariak eta lan-bazkideek aukeratutako Kontseilu Errektoreko kideek osatzen dute. Kontseilu Errektoreak eskuordetutako eskumenak hartzen ditu bere gain, lan-bazkideei dagokienez.
- 4. Kontseilu Soziala** lan-bazkideen ordezkari-organoa da. Kontseilu Errektoreari eta Zuzendaritza Nagusiari lan-harremanarekin zerikusia duten alderdi guztiei buruzko informazioa ematea, aholkatzea eta kontsultak egitea dira haren oinarritzko funtzioak, eta dagozkion nahitaezko txostenak egin beharko ditu.
- 5. Zaintza Batzordea** lau kidek osatuko dute; horietatik bi bazkide erabiltzaileen ordezkariak izango dira, eta beste biak lan-bazkideak. Urteko kontuak berrikustea, horiei buruzko nahitaezko txostena egitea eta kooperatibaren liburuak berrikustea dira, besteak beste, haren eginkizun nagusiak.
- 6. Zuzendaritza Nagusia** Kontseilu Errektorearen etengabeko eta zuzeneko kontrolpean dago. Kontseilu Errektoreak bere esku uzten du zentroaren kudeaketaren ardura, eta Zuzendaritza Kontseiluak laguntzen eta aholkatzen du.
- 7. Zuzendaritza Kontseilua** da Kontseilu Errektoreko zuzendaritza- eta aholkularitza-taldearen funtzioak koordinatzeko organoa, eta Kooperatibaren garapena aurreikustea, planifikatzea eta sustatzea du eginkizun nagusi, bai eta haren kudeaketa hobetzea ere.

Ondoren, IKERLANeko enpresa bazkideak aurkeztu dira, bazkide erabiltzaile eta laguntzaile gisa:

Enpresa bazkide erabiltzaileak

- Abantail
- ABC Compressors
- Ampo
- Beeplanet Factory
- Conatec
- Copreci
- Erreka
- Fagor Automation
- Fagor Arrasate
- Fagor Ederlan

- Fagor Electrónica
- Fagor Industrial
- Mondragón sistemas de Información + Teknilagun
- Laulagun
- LKS Next
- Orkli
- Orona
- Osatu
- Ulma packaging + UPT
- ZIV Automation

Enpresa bazkide laguntzaileak

- Arizmendi ikastola
- Fundación MONDRAGON
- Laboral Kutxa
- Mondragon Goi Eskola Politeknikoa / Mondragon Unibertsitatea



BEZEROAK ETA MERKATUAK

JARDUERA ETA BALIO-KATEA

IKERLANek lankidetzan dihardu enpresekin. Horretarako, abangoardiako teknologia transferitzen die, eta balio lehiakorra ematen die beren negoziarako, hiru lankidetzaz-motaren bidez:

- Proiektu espezifikoetan balioa ematea.
- Urte anitzeko lankidetzaz-hitzarmena.
- Lankidetzaz-estrategikoa.

Enpresa bezeroekin lankidetzaz estuan garatzen dira proiektuak, eta batera egiten dute lan uneoro, soluzioaren industrializazioaren aurreko fasera iritsi arte.

IKERLAN etengabe egokitzen da industriaren eta enpresen erronkei arrakastaz erantzuteko, eta irtenbide integralak eskaintzen ditu, "Sozietateak eta produktuak" atalean aipatutako hiru alor handietan hainbat teknologia-esparru konbinatuz.

ZEIN SEKTORETAN JARDUTEN DUEN

Hainbat sektoretako ehun eta berrogeita hamar enpresak baino gehiagok konfiantza dute IKERLANengan bere teknologia garatzeko eta desberdintzeko, lehiakortasuna eta erresilientzia irabaziz. Zentro teknologikoak bere bezeroen % 80ekin kolaboratzen du modu egonkorrean. Bezero horiek, nagusiki, sektore hauetakoak dira:



Finkatutako sektoreak:

- Garraioa eta mugikortasuna.
- Fabrikazio aurreratua.
- Energia.
- Elektronika eta IKTak.

Azaleratzen ari diren sektoreak:

- Automozioa.
- Aeronautika eta aeroespaziala.
- Osasuna eta kirola.
- Elikagaiak eta edariak.
- Bankuak eta aseguruak.

HORNITZAILEAK

Jarduera-maila ezin hobea eta kalitatezko konpromisoa mantentzeko, IKERLANek hornitzaile-sare bat du jarduerak behar bezala funtziona dezan, hala nola ekipoak eta programa-lizentziak erostea, *software*aren eta ekipamenduaren mantentze-lanak eta kanpo-zerbitzuak.

BESTE MERKATARITZA-HARREMAN BATZUK

Merkatuko sare estrategikoaren barruan, IKERLANek kanpoko aholkularitza eta erakunde hauen laguntza du: MONDRAGON Sustapen Zentroa (Aktibo Teknologikoak eta OTEBak), MINSAIT (merkatuaren analisi globalak), Zabala Innovation Consulting (Administrazio Publikoen programak kudeatzeko laguntza eta berrikuntzarako aholkularitza), HASTEN (Oinarri Teknologikoko Enpresa Berriak, *Startup*ak) eta ARPA (*software* librea).

Zentro teknologikoak, halaber, Zermik eta Teatekh bezalako ingeniari-tza-sare batekin kolaboratzen du PCBak eta muntaketa elektronikoak garatzeko, eta hitzarmen estrategikoa bat du LKS Next-ekin, SAT eta plataforma digitalen saldu osterako zerbitzu-erakundeak.

OTEB-AK ETA STARTUP-AK

Enpresen benetako beharretarako irtenbideak garatzeko bokazioari leial, IKERLANek oinarri teknologikoko enpresa berriak eta *startup*ak bultzatzen ere parte hartzen du, industriaren erronkei erantzuteko teknologia garrantzitsuen berri izateko helburuarekin.

MULTIVERSE

Zentro teknologikoak aliantza aitzindaria eratu du Multiverse Computing-ekin —konputazio kuantikoko teknologietan liderra den enpresa—, industriari aplikatutako konputazio kuantikoaren esparruan.

Lankidetzaz hori sortu da IKERLAN, LKS Next eta MONDRAGON Korporazioarekin batera, *startup*-ean inbertitzaile gisa parte hartzen ari delako.

MICRUX TECHNOLOGIES

Oinarri teknologikoko enpresa berritzaile hau 2008an sortu zen, Oviedoko Unibertsitateko spin-off gisa, gailu mikrofluidikoen, transduktore elektrokimikoen eta instrumentazio analitiko miniaturizatuaren arloan soluzioak garatzeko helburuarekin, *Lab-on-a Chip* teknologiek eskaintzen dituzten abantailak aprobetxatuz.

ORBIK CYBERSECURITY, S.COOP.

ORBIK CYBERSECURITY, S. COOP. zibersegurtasun industrialaren euskal ekosistema indartsua osatzeko eta indartzeko sortu zen, lehen kanpoan kontratatu behar zen behar teknologiko eta normatibo bati erantzuteko.

IKERLAN euskal zentro teknologikoak aukera-leiho bat identifikatu zuen 2020an: bere produktu elektronikoa ziberseguruak direla ziurtatzen duen kanpoko zigilu bat eskaintzea industriari, zibersegurtasuneko nazioarteko arau zorrotzen arabera. Ideia hartatik ORBIK CYBERSECURITY, S. COOP. sortu zen.

Zentroaren *startup* berria, 2023an sortua, produktu elektronikoa industrialeko zibersegurtasun-konpainia bat da, zentroaren *know-how*ean eta esperientzian oinarritua. Sortu zenean, estatuan zegoen bakarra zen ekipamendu elektronikoko fabrikatzaile europar industrialei zerbitzua ematera bideratuta

zegoena, horiek merkatuan posizionatzeko produktu ziberseguru ziurtatuak eskaintzen dituzten konpainia gisa, hori egitea derrogorrezkoa izan aurretik. Egoitza Euskadin eta nazioarteko bokazioarekin, enpresa berriak zibersegurtasun industrialeko nazioarteko araudiekiko eta zerbitzu gehigarriekiko adostasuna ebaluatzeko laborategi gisa finkatu nahi du, araudia betetzen laguntzeko, hala nola ahulezien azterketa aktiboa eta jarraitua industria-produktuen eragiketen bizi-ziklo osoan.

Konpainia berriak hainbat industria-sektoretako ekipamendu-enpresa fabrikatzaileetan jarri zuen arreta, batez ere osagai- eta sistema-fabrikatzaileetan, eta, oro har, sektore kritikoetarako ekipo-fabrikatzaileetan; hau da, funtsezko zerbitzuak eskaintzen dituztenetan eta zibereraso baten aurrean ahulagoak izan litezkenetan, eta, beraz, ORBIK CYBERSECURITYk proposatzen duen eskaintza aitzindariarekiko sentikorrak direnetan.

ORBIK CYBERSECURITYk bere Batzar Eratzailean MONDRAGON Korporazioari elkartzea eskatu zion, baita Lagun Aron sartzea ere. Lagun Aro EPSVk ORBIK CYBERSECURITY, S. COOP.-en integrazioa onartu du 2024ko azaroaren 26ko Kontseilu Errektorean.

ORBIK CYBERSECURITY oinarri teknologikoko lehen kooperatiba mistoa da. Hainbat eragilek hartu dute parte kooperatiba sortzeko eta bihurtzeko prozesuan: lan-bazkideak, IKERLAN, MONDRAGON Korporazioa, Basquetek Venture/ Eusko Jaurlaritza. Estrategia hori funtsezkoa da proiektuaren epe luzeko arrakasta eta bideragarritasuna ziurtatzeko.

Inbertsio mota honek hainbat eragileren parte-hartzea du ezaugarri, enpresak, finantza-erakundeak, gobernu-erakundeak edo baita erakunde pribatuak ere, bakoitzak proiektuaren fase desberdinetan baliabideak, ezagutzak eta gaitasunak emanez. Lankidetzarako esparru argia ezarri da, alde bakoitzaren ardurak eta onurak zehazten dituzten akordioekin.

BATTBELT

IKERLANek garatu eta patentatutako aktibo teknologiko batetik abiatuta, eta BeAble Capital funtsarekin lankidetzan, 2023an *startup* berri bat sortu zen, BATTBELT izenekoa, oinarri teknologikoko enpresa berri bat, energia elektrikoa biltegitratzeko baterietarako konpresio-sistemak garatzen dituen.

2024an, NMC motako bateriei zuzendutako Kontzeptu Proba bat (PoC) egin da, aktibo hori emaitza bikainekin baliozkotzeko. Gainera, 2024an inbertsio-erronda bat egin da, eta BeAble Capital, IKERLAN eta Basketek Venture / Eusko Jaurlaritzak parte hartu dute. Lankidetzarako esparru argia ezarri da, alde bakoitzaren ardurak eta onurak zehazten dituzten akordioekin.

2025ean, kontzeptu-proba hori beste bateria-teknologia mota batzuekin baliozkotu da, hala nola LFP eta SSB (egoera solidoko bateriak), eta lankidetzan-harremanak sortu dira teknologian interesa duten zenbait enpresarekin, hala nola CAF, BMW, Volvo, Hoppecke, Cegasa, Valeo edo OPMobility. Bestalde, PoC-ak finantzatzeko erabiltzen ari diren finantzaketa publikoko hainbat proiektu lortu dira, hala nola Hazitek Estrategikoak edo Neotec.

EDERBATT

2024an, IKERLANek FAGOR EDERLAN, MONDRAGON ASSEMBLY, ORKLI, MONDRAGON INVERSIONES eta EZTEN EJko Arrisku Kapitaleko Funtsarekin batera, EDERBATT *startup*-aren sorreran parte hartu du. *Startup* horrek energia metatzeko era guztietako sistemen (baterien) manufaktura-, muntatze-, mantentze- eta konponketa-zerbitzu integrala emango du.

INNIA

IKERLANen AAn oinarritutako hiru *software* garatu ondoren, 2025ean INNIA enpresa sortu zen, hainbat produktuekin merkatuari zerbitzua emateko. Produktu horien oinarria IKERLANek erregistratutako softwareek sortu dute:

K-ALMA Unit Testing: teknologia hau algoritmo batean oinarrituta dago, zeinak proba unitarioak automatikoki sortzen dituen programazio-lengoaia arruntetako iturburu-kode baterako. Proba unitarioak sortzeko, algoritmoak AA sortzaile batekin elkarrekaragiten du, eta gidatu eta berrelikatu egiten du, proba unitario baliozkoak aurkitu arte eta eskatutako estaldura-mailarekin.


Multiagente arkitektura: teknologia hau LangGraph-ek agente espezializatuen APlen deiak modu eraginkorrean orkestratzeko erabiltzen duen multiagente arkitektura bat da.

IkerChat: teknologia hau langileen galderak erantzuten dituen enpresa-*chatbot* bat da, barne-dokumentazioaren bilaketaren eta interpretazioaren bidez, erantzun zehatzak eta erreferentziadunak ematen dituen.

AMETS POWER ELECTRONICS

2025ean, ARTECHE, MONDRAGON INVERSIONES eta IKERLANen parte-hartze eta inbertsioari esker, *Joint Venture* bat sortu zen, potentzia-elektronikako ekipoak garatzeko, gero eta ezegonkorragoa den sare elektriko bati laguntzeko, energia berriztagarrien iturriak modu banatuan sartzen baitira masiboki.

2025ean, STATCOM-hibrido baten teknologia garatzen hasi da, enpresa berriak 2028an merkaturatzeko lehen produktua izateko.



ALIANTZAK ETA LANKIDETZA ESTRATEGIKOAK

IKERLANek garrantzia ematen dio alderdi interesdunekin hainbat lankidetza-eremu identifikatu eta garatzeari. Izan ere, uste dugu beharrezkoak, garrantzitsuak eta egokiak direla alderdi parte-hartzaile guztien espektatibak betetzeko eta emaitza hobeak lortzeko.

IKERLANek zentro, unibertsitate eta erakunde ospetsuek osatutako lankidetza-sarea du, eta zentro teknologikoaren gaitasunak indartzen etaosatzen dituzte.



MONDRAGON Korporazioa

IKERLAN 1974an sortu zen, MONDRAGONeko (lehen euskal industria-taldea) kooperatiben eskutik. IKERLANen jatorriak eta nortasun kooperatiboak Ezagutza Dibisioko kide bihurtzen dute. Gaur egun, fakturazioaren %22 inguru MONDRAGON Korporazioko kooperatibetatik dator.

Gainera, MONDRAGON Korporazioa eta zenbait kooperatiba IKERLANen bazkide erabiltzaileak eta laguntzaileak dira, eta kooperatibaren gobernantza-organoetan ordezkatuta daude.



Basque Research & Technology Alliance

IKERLAN BRTA aliantzaren parte da. Aliantza hori Eusko Jaurilaritzaren, SPRI Taldearen, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundien eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko (ZTBES) 17 eragile zientifiko-teknologikoren arteko lankidetza-hitzarmen baten bidez sortu zen. Gaur egun, BRTAko kide guztiok parte hartzen dugu BRTA bera buru den lan-talde zientifiko-teknologikoetan, merkatukoetan, zuzendarienetan eta pertsonenenetan.



Zentro Teknologikoen Espainiako Federazioa

2022an, IKERLAN FEDITen sartu zen, Espainiako gainerako zentro teknologikoekiko lankidetza sendotzeko. Lan-ildo nagusiak posizionamendu estrategikoa eta hedapen teknologikoa dira.

Klusterrak eta elkarteak



IKERLAN enpresa-talde berritzaile edo kluster hauetako bazkide da: GAIA (Euskadiko Ezagutza eta Teknologia Industrien Elkarteak), ACE (Euskadiko Energia Klusterra) eta AFM (Makina-erreminta, Osagarri, Osagai eta Erreminta Fabrikatzaileen Espainiako Elkarteak). CYBASQUE (Euskadiko Zibersegurtasun Industriak ordezkatzen dituen Elkarteak) eta STECH (*Manufacturing* Industriarako Teknologia Adimendunen Elkarteak) elkarteek sortutako ekimenetan ere parte hartzen du.

Era berean, IKERLANek zeregin garrantzitsua du EVEn (Energiaren Euskal Erakundea), BAICen (*Basque Artificial Intelligent Centre*), ZIUREn (Gipuzkoako Zibersegurtasun Industrialeko Zentroa), MUBILEn (Mugikortasun Berriko Zentroa), AEPIBALen (Energia Bateriekin Biltegiratzeko Espainiako Elkarteak) eta GSGHIn (Iberdrolako *Global Smart Grids Innovation Hub*), bere *expertise*-a emanez eta lan taldeetan eta ekimenetan trakzionatuz.

IKERLANek harremana du SPRI eta INNOBASQUE bezalako erakundeekin, *Basque Digital Innovation Hub* bezalako ekimenetan parte hartuz.

Gainera, bere jardueraren izaera dela eta, IKERLANek zenbait enpresaren hausnarketa estrategikoko prozesuetan parte hartzen du, eta lankidetza-hitzarmenak ditu haiekin. Era berean, bere hausnarketa estrategikorako enpresen eta beste eragile batzuen parte-hartzea eskatzen du.

Azkenik, IKERLANek bere ikerketa-ildoan garapena aberasten du, ikertzaileen trukea beste herrialde batzuekin sustatuz eta proiektuetan batera parte hartuz, tokiko, estatuko eta nazioarteko zentro teknologikoen eta unibertsitateen sareari esker.

HELBURUAK ETA ESTRATEGIAK

IKERLANek egindako hausnarketa estrategikoko prozesuaren ondorioz, IK2027 Plan Estrategikoa berrikusi da, PE IK 2029 izenekoa, eta 2026-2029 aldirako jarduera orokorreko esparru gisa baliok du. Planaren berrikuspena egiteko, lan-prozesu parte-hartzaile bati jarraitu zaio, eta IKERLANeko organo eta bazkide guztiek hartu dute parte.

Lau ardatz estrategikotan oinarritutako Planak honako hauek azpimarratzen ditu: zentroaren posizionamendu estrategikoa indartzea, pertsonen eta talentuaren aldeko apustua sustatzea, transferentzian lider izaten jarraitzea eta enpresei baliorik handiena ematea, eta gizartearen beharrei eta erronkei erantzungo dieten ezagutza eta teknologia berritzaileak garatzea.

- Posizionamendu estrategikoaren ardatza.
- Pertsonak ardatza.
- Merkatuaren ardatza.
- Ezagutzaren ardatza.

Ardatz estrategiko horietan garatutako lanaren bidez, IKERLANek helburu hauek ditu:

1. Liderra izatea industriara teknologia transferitzen eta puntako enpresen erakunde bazkide estrategikoa izatea, bitartekoak eta baliabideak jarriz eta gure estrategia MONDRAGONekin lerrotuz.
2. Abangoardia zientifiko-teknologikoan egotea bere espezializazio-arloetan, efizientzia lantzen eta merkaturako baliorik handiena ateratzen.
3. Eredu kooperatibo eta pertsonen kudeaketa eredu malgu eta bereizgarriagatik erreferente soziala izatea, autoexijentzia eta autoerantzukizuna indartuz eta pertsonen garapen profesionala indartzearen aldeko apustua eginez.
4. Gure *startupek*, kolaboratzaile nagusiek eta bezero estrategikoek osatutako IKERLAN hedatu bat eraikitzen jarraituko duen zentro bat izatea.
5. Eredu jasangarria, lehiakorra eta etengabe eraldatzen ari dena izatea, erreferentzia dena enpresentzat, Administrazio Publikoentzat eta gizartearentzat.

Jarraian, zehaztutako 12 proiektu estrategikoak aurkezten dira. Batzuk aurreko aldi estrategikoko proiektuak dira, mantentzen direnak (ñabardura batzuekin edo arreta-gune berrieekin). Beste batzuk proiektu berriak dira.





4 ARDATZ	12 PROIEKTU ESTRATEGIKO	HELBURU NAGUSIAK
0. ARDATZA POSIZIONAMENDUA	P0.1 IKERLAN Hedatua	IKERLAN Hedatua eraikitzen jarraitzea, guretat eta aliatuentzat aukera berriak sortzen laguntzeko, gure bezeroei eta gizarteari balio handiagoa emateko, guztientzako balio handiko proiektu zehatzak sortzeko estrategia partekatuz, ikuspegi eskuzabal, handinahi eta zabal batetik.
	P0.2 Eraginkortasunaren kultura	Eraginkortasunaren kultura indartzea IKERLANen, gure jardura guztien ikuspegi global eta integratu batetik, ez bakarrik gure kostuak hobeto kontrolatzeko, baizik eta gure baliabideak hobeto kudeatzeko eta sortzen dugun balioa maximizatzeko.
	P0.3 Eraldaketa digitala eta jasagarria	Gure zibersegurtasuna indartzen jarraitzea eta AA gure prozesu eta proiektuetan aplikatzen jarraitzea, tresna horiek eskaintzen diguten ahalmen guztia aprobetxatzeko. Gainera, gure jasagarritasuna hobetzen lagunduko duten sistemak, prozesuak eta tresnak ezartzen jarraituko dugu, gure zentrorako aplikagarriak diren araudi eta legeen arabera.
1. ARDATZA PERTSONAK	P1.1 Malgutasun Zorrotza eta Autoerantzulea	Lan malgutasuneko egungo tresnak (tegelana, egoitza malguak, udako ordutegia, etab.) garatzen eta hobetzen jarraitzea, exigentziatik eta autoerantzunkizunetik, enpresa mailan zein maila pertsonalean eraginkortasuna bilatzen duen lan egiteko modu gisa ezar daitezzen.
	P1.2 Garapen Profesionala eta eta Talentuaren Kudeaketa Estrategikoa	Pertsonen garapen profesionala eta ibilbide profesionalen identifikazio proaktiboa indartzen jarraitzea, GARATZENen bildutako informazioa oinarri hartuta. Pertsonen interesak IKERLANen etorkizuneko beharrekin ahalik eta ondoen lerrokatzea lortu nahi da.
	P1.3 IKERLAN: Erreferente Soziala	Horrelako ekintzak bultzatzea, horiei balioa ematea eta ikusgarritasuna ematea, horrela gure erreferentzialtasun soziala indartzeko.
2. ARDATZA MERKATUA	P2.1 Startup-en Ekosistema Diferentziala	Izaera ezberdina eta garapen maila ezberdina duten enpresek osatzen duten eta oraindik IKERLANen bultzada eta laguntza garrantzitsua behar duen <i>startup</i> ekosistema sendotzea.
	P2.2 Dibertsifikazio /hazkunde kolaboratiboa	Egungo bezeroekin edo bezero berrieekin merkatu aukera berriak detektatzea (sektore tradizionalan edo sektore berrietan), eta gure zorroa dibertsifikatzeko aprobetxatzeko gai izatea.
	P2.3 Balio Eskaintza Erakargarria eta Balio Handiko Bezeroen Zorroa	Balio teknologiko eta sektorialeko eskaintza zein arloetako bezero zorroa eta haren kalitatea aldezka berrikusteko prozesuak implementatzea, eta horiek egokitze/hobetzeko neurriak hartzea, epe ertainean balio handiagoa duten bezeroak indartzeko aukera izan dezagun.
3. ARDATZA EZAGUTZA	P3.1 Balio Ikerketa eta Emaitzetara Bideratua	Ikerketa proiektuak merkatutako balio emaitzetara bideratzen direla bermatzea, Espezializazio Planean zehaztutako helburuak planteatzen diren ikerketa proiektuetan estrategikoki zabalduz.
	P3.2 Ikerketaren Finantzaketa eta Banaketa Estrategikoa	Finantzaketa programa publikoetako aldatetara modu egokian egokitzea, horietan dugun presentzia eta parte hartzea optimizatuz, eta finantzatu beharreko teknologiak eta jarduerak balioaren eta baliabideen erabilgarritasunaren arabera hautatu eta orekatzeko aukera emango duen estrategia definituz.
	P3.3 Ezagutzaren aprobetxamendua	IKERLANen ezagutza aprobetxatzeko kultura globala bultzatzea, bereganatutako edo sortutako ezagutzak modu eraginkor eta iraunkorrean kudeatuz, partekatuz eta aplikatuz, erakundearen proiektuetan eta jardura guztietan (alderdi teknikoak eta barne prozesuak) duten inpaktua maximizatzeko.

INGURUAREN IKUSPEGIA

MERKATUAREN JOERAK ETA IKUSPEGIA

2025 LABURPENA

2025a urte konplexua izan da maila globalean, baina positiboa, oro har, IKERLANentzat. Urte honetarako titular posible ugarien artean, bi nabarmendu ditzakegu: gure *startupen* ekosistemari emandako bultzada eta enpresetarako transferentziaren portaera ona.

Bi alderdi oso positibo nabarmendu behar dira *startupen* ekosistemari dagokionez: batetik, bi enpresa berri sortu dira, INNKIA eta AMETS Power Electronics, eta, bestetik, ORBIK Cybersecurityren fakturazioa eta pertsonala hazi egin dira (2024an 200 k€ fakturatzetik 2025ean 1,4 M€ fakturatzera pasatu da 40 pertsonarekin).

Ekonomiari dagokionez, IKERLANek 18,5 M€-ko zifrarekin amaitu du urtea (1,5 M€-tan gaintitu du 2024ko itxiera, % +8,8), eta Kudeaketa Planean zehaztutako helburura iritsi da. Urteak bere konplexutasuna izan du, zorroa oso berandu finkatu baita, urtearen lehen zatian nahi baino jarduera gutxiago suposatuz, baina bigarren zatian berreskuratuz.

PERSPEKTIBAK 2026

Aurreikuspenen arabera, 2026an hazkunde ekonomiko baxuak edo moderatuak bere horretan jarraituko du, eta Euskadirako aurreikuspena da % 1,9ko hazkundera izango duela (2025eko % 2,3a baino txikiagoa); hau da, 2025eko egoeraren oso antzekoa izango da. IKERLANi dagokionez, gure bezeroek askotariko ikuspegiak helarazten dizkigute: enpresen zati esanguratsu batek I+Gko inbertsioari eustearen alde egiten du, eta, kasu jakin batzuetan, inbertsio hori indartzearen alde; bezero batzuek, berriz, zenbait zailtasunen berri ematen digute. Ziurgabetasun orokorra gorabehera, 2026rako transferentzia-aurreikuspenak positiboak dira oraindik ere.

JOERAK

Hona hemen etorkizunean IKERLANen eragin handiena izan dezaketen joera eta aldaketa nagusiak eta haien ondorioak:

JOERAK	IKERLANENTZAKO ONDORIOAK
Eskariaren bilakaera	- Eskariaren hegazkortasuna handitu da. - Aukera berriak sortzen ari dira IKERLANentzat tradizionalak ez diren sektoreetan, batez ere zerbitzuetan, baina baita industrian ere. <i>Startup</i>-en bidez eskaera "sortzen" ari gara.
Talentua erakartzeko eta gizartearen balioak aldatzeko lehia	- Etengabeko egokitzeko lehia eta beharra mantentzen dira. - IKERLANen posizionamendu erlatibo hobea sumatzen da. - Eskarian nolabaiteko moderazioa sumatzen da.
Euskal finantzaketa publikoaren bilakaerari buruzko zailtasunak	- Ziurgabetasuna mantentzen da, ez bakarrik euskal finantzaketan, baita Europakoan eta estatukoan ere. - Sektore militarren bultzada publikoa.
Erakunde bazkideen rola eta inplikazioa	- Erakunde bazkideen kopurua handitzea. - Enpresa bazkide figura berrikusi behar da.
Arau aldaketak (lan erreforma, berankortasun legea...)	Aldaketetara egokitzea.
Azelerazio teknologikoa	Teknologia giltzarriak identifikatzeko, txertatzeko eta babesteko, merkatuan balioa emateko eta erreferentzialtasuna lortzeko gai izatea (ekipo berriak sortzeko eta prestatzeko dinamismoa eskatzen du, trebakuntzan ahalegin handiagoa eta AAren erabilera egokitzea...)

ERAGINAK, ARRISKUAK ETA AUKERAK

IKERLANen enpresari eragiten dioten eta haren jarduerak eragiten dituen arriskuen eta aukeren kudeaketa sistematikoa egiten da.

Zentroak batzordeak eta lan-taldeak ditu, kooperatibaren funtzionamendu egokian laguntzeko, hainbat arlotan: berdintasuna, laneko arriskuen prebentzioa, ingurumena, kultura eta kalitatea:

- **Segurtasun eta Osasun Batzordea:** Laneko Arriskuen Prebentzioaren arloan eskumena duen organoa.
- **Euskara Batzordea:** IKERLANen euskararen erabilera sustatzeko eta normalizatzeko batzordea.
- **Genero Berdintasunerako Batzordea:** organo aholku-emaile bat da, barneko organo eta kolektiboen ordezkari duena eta parte-hartzea sustatzen duena. Berdintasuna bultzatzeko ekintzak dinamizatzea eta gainerako organoei gai horretan aholkuak ematea du helburu.
- **Kudeaketa Sistema Integratuko Batzordea:** batzorde hori arduratzen da IKERLANen Kudeaketa Sistema Integratuko prozesu guztiak kudeatzeaz eta IKERLANen etengabeko hobekuntza bermatzeaz.

- Kalitatea: ISO 9001.
- I+G+b: ISO 56001.
- Informazioaren segurtasuna: ISO 27001.
- Datu pertsonalen babesa: ISO 27701.
- Laneko segurtasuna eta osasuna: ISO 45001.
- *Compliance*.
- Zibersegurtasun-laborategiaren akreditazioa, ISO-IEC17025en arabera.

- **Betetze-batzordea:** batzorde horren bidez, arriskuak urtero berrikusten dira, eta COMPLIANCE sistemaren ekintza-plan bat ezartzen da, delituak prebenitzeko eta delituak egitearen arriskua nabarmen murrizteko.
- **Gatazkak kudeatzeko batzordea:** pertsonen arteko jazarpen-egoerak, edozein motatakoak direla ere, lan-esparruan aztertu, ebaluatu, erabaki eta irtenbideak proposatzeaz arduratzen den batzordea.

Enpresaren barruan sor daitezkeen gatazkak prebenitzeko eta konpontzeko, Estatutu sozialetan eta Barne Araudian ezarritakoaz gain, IKERLANek gatazken protokolo bat du, IKERLANi eta bere langileei laneko jazarpenaren arloko gatazka-egoerak kudeatzen laguntzen diena eta laguntza ematen diena.





PRODUKTUEN ETA ZERBITZUEN KALITATEA

IKERLANek garrantzi handia ematen dio bezeroen esperientzia gogobetegarria izateari, proiektuen definizioari, gauzatzeari eta entregari dagozkien alderdi guztiak zainduz.

Nola ez, arreta berezia jartzen da enpresa bezeroak zer behar duen argi eta garbi identifikatzean, gauzatu beharreko proiektua behar bezala dimentsionatzean, epeak betetzean, kostuak kontrolatzean eta, jakina, bezeroei ematen zaienaren kalitatean, izan enpresa edo administrazio publikoak, izan dokumentu, SW edo HW prototipo edo guztiaren konbinazio moduan entregatzekoak.

Enpresa bezeroekin eta haien benetako behararekin sintonizatzeaz gain, ezinbestekoa da entregatzen zaionak modu egonkor eta sendoan erantzun dezan, proiektuaren baldintza funtzional eta ez-funtzionaletan ezarritako erabilera-baldintzetan. Beraz, proiektuen entregagaia edozein dela ere, onarpen - eta baliozkotze-prozesu zorrotza aplikatzen zaio, bai barnean, bai enpresa bezeroaren aldetik.

Baina kalitatearen kontzeptua ez da entregatutakoa bezeroaren espektatibetara egokitzea bakarrik; funtsean, negozio-prozesuen eraginkortasunaren eta kontrolaren nozioan eragiten du, lidergo- eta estrategia-prozesutik proiektuen kudeaketara. Prozesu horiek guztiak IKERLANen Kudeaketa Sistema Integratuak (SGI) monitorizatzen eta kontrolatzen ditu. Sistema hori ISO 56001, ISO 9001, ISO 27001, ISO 45001, ISO 14001, ISO 27701 eta ISO-IEC 17025 arauen eskakizunetan oinarritzen da.

ENPRESA BEZEROEN BEHARRETARA EGOKITZEA

Bai enpresa barruan, bai interes-taldeetan, bezero diren enpresen beharretara egokitzea faktore estrategikotzat hartzen da, eta gai materialen artean garrantzitsuenen artean kokatzen da laneko segurtasun eta osasunaren eta kalitatearen atzetik.

Hasiera-hasieratik, hori izan da IKERLANen ezaugarri bereizgarria; izan ere, kooperatibek, batez ere industrialek, teknologikoki abangoardian jartzeko beharra zuten lehiakortasuna bermatzeko, eta horregatik sortu zen IKERLAN 1974an. Harrezkero, ezaugarri horri eutsi zaio. Izan ere, IKERLAN izan da historikoki, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko kideen artean, bere fakturazioaren ehuneko handiena enpresekin egindako transferentzia-proiektuei dagokiona izan duena.

Ikuspegi hori oso baldintzatuta dago enpresek IKERLANen gobernantzan eta estrategian duten pisuagatik. Izan ere, bigarren mailako kooperatiba denez, Kontseilu Errektorearen bi herenak enpresa bazkideetako ordezkariak osatzen dute.

Halaber, lotura handia dago IKERLANen bazkide diren 24 enpresekin, erabiltzaile- edo laguntzaile-modalitateetan.

Ondorioz, proiektuak garatzean oso kontuan hartzen dira enpresa bezeroen behar espezifikoak, industrian arrakastaz ezar daitezkeen teknologia berrien bidez irtenbide berritzaileekin erantzun ahal izateko.

Bezeroek beren espektatibak eta beharrak betetzeari buruz duten pertzepzioaren jarraipena egiteko, IKERLANen bezeroen gogobetetze-maila ebaluatzen da aldizka, inkesten eta elkarrizketen bidez.

Bezeroaren benetako beharra atzematen jakiteaz gain, IKERLANekin lankidetzan ari diren enpresek garrantzi handia ematen diete beste faktore batzuei:

- Proiektuetan ezartzen den lankidetzaren eredua (IKERLAN-enpresa).
- Proiektuan parte hartzen duten enpresako langileen prestakuntza eta gaikuntza, proiektuan lantzen diren tekniken, teknologien eta garapenen esparruan.
- IKERLANek ematen dien laguntza proiektuetan lankidetzan ari diren enpresei finantzaketa publikoa eskatzeko, ikerketa-proiektuek berezkoa duten arrisku-osagaia arintzen laguntzeko.
- Enpresa bazkideen eta gainerako alderdi interesatuen inplikazioa IKERLANeko Plan Estrategikoa eta Espezializazio Plana definitzerakoan.



BERRIKUNTZA

Berrikuntzaren kontzeptua I+G+b jardueraren “b”an dago, zentro teknologiko gisa IKERLANen jarduera nagusia dena.

IKERLAN bezalako zentro batean, berrikuntza arlo guztietan eman behar da, ideiak eta ikerketa-proposamenak sortzetik hasita, barne-prozesuen eta kudeaketaren hobekuntzatik pasatuta, eta, jakina, enpresa bezeroentzat garatzen diren produktu eta zerbitzuetan.

Azken batean, berrikuntzak zentroaren ezagutza balio ekonomiko bihurtzea dakar, enpresa bezeroei teknologia transferituz, zentroan garatutako aktibo teknologikoetan oinarritutako oinarri teknologikoko enpresa berriak sortuz edo barne-eraginkortasuna hobetuz.

Testuinguru horretan, ezagutzaren kudeaketa funtsezkoa da proposatutako helburuak lortzeko bide eraginkorrak garatzeko. Ezagutzaren kudeaketa horrek askotariko eremuak hartzen ditu bere baitan: zaintza estrategikoa, talentua erakartzea, ezagutza kritikoa formalizatzea eta transmititzea, jardunbide egokiak identifikatzea eta formalizatzea eta hedatzea, prestakuntza, ikerketa-proiektuen garapena, emaitzak identifikatzea, formalizatzea eta babestea, zentroak merkatura duen balio-eskaintza eta ezagutza ustiatzeko bideak etengabe aztertzea eta eguneratzea, etab.

Prozesu hori gidatzeko eta garatzeko, IKERLANek ISO 56001 arauaren ziurtagiria du. Ziurtagiri horrek I+G+ba kudeatzeko sistema batek bete behar dituen baldintzak definitzen ditu.

Zentroetan beren kudeaketaren eraginkortasuna bultzatzeko eta beren jarduera enpresa-sarera balioa sortzera eta transferitzera bideratzeko, Eusko Jaurlaritzak Emaitek+ adierazleak ezarri zituen 2015ean. Adierazle horiek berrikusten ari dira, eta 2026an adierazle berri batzuk definituko dira, Emaitek Industria Hobearen izenekoak. Horien bidez, zentro teknologiko bakoitzaren helburuen betetze-mailaren eraginkortasuna neurtzen da, bai emaitzen ikuspuntutik, bai

ikerketa-ereduarenetik. Zehazki, IKERLAN bezalako zentro teknologiko multifokalizatuen kasuan, adierazleek hau neurtzen dute: I+Gko jarduera-*mixa*, espezializazioa, bikaintasuna eta harreman-eredua.

IKERLANek Emaitek+ adierazleen betetze-maila handiari eustea lortu du denboran zehar, azken urteotako testuinguru zaila eta pertsonetan hazkunde handia izan duen arren (I+G+bn lan egiten duten EJC). Zehazki, Emaitek + 2025 deialdirako aplikagarriak diren adierazleei dagokienez, IKERLANek 2025eko helmuga gainditzen du aginte-taulako 18 adierazleetatik 14tan, eta zentro teknologikoen batez bestekoa baino egoera hobea du 18 adierazleetatik 9tan; ia puntuazio maximoa duen zentroaren maila berean dago (% 96,19; gehieneko puntuazioa, berriz, % 96,36koa da).



INFORMAZIOAREN PRIBATUTASUNA ETA KONFIDENTZIALTASUNA

Gero eta ohikoagoa da, proiektuen baldintza funtzionalez gain, informazioaren sailkapenari, erabilerari, tratamenduari, konfidentzialtasunari eta babesari buruzko hainbat klausula zehaztea.

IKERLANek, beraz, trebakuntza behar du informazioaren segurtasunari dagokionez betekizun garrantzitsuak dituzten proiektuei ekiteko; izan ere, nahitaezkoa da alderdi horri berebiziko garrantzia ematen dioten erakunde handiekin lan egin ahal izateko.

Hori dela eta, IKERLANek bere politikan onartzen du informazioaren segurtasunak duen garrantzia bere jarduerak behar bezala egiteko. Izan ere, segurtasunaren oinarrizko printzipioak finkatzen eta integratzen ditu baldintza operatiboekin, konfidentzialtasunari, benetakotasunari, trazabilitateari, osotasunari, erabilgarritasunari eta informazioaren kontserbazioari dagokienez.

Testuinguru horretan, IKERLANek bere jarduera behar diren segurtasun-estandarrekin egiteko aukera ematen duten ezagutzak, tresnak eta sistematikak ditu, eta, horregatik, ISO 27001 arauaren arabeko ziurtagiria du, informazioaren segurtasunari buruzko gaiak jorratzen dituen.

2025eko ekitaldian ez da erreklamaziorik egin datuak galtzeagatik edo segurtasun-uraketengatik.



02. Ingurumen-gaiei buruzko informazioa

IKERLANek konpromisoa hartzen du ingurumena zaintzeko eta klima-alaketaren aurka borrokatzeko.

INGURUMEN-KUDEAKETA

Garapen ekonomiko eta sozial jasangarriari laguntzea da Kudeaketa Integratuko Politikaren printzipioetako bat. IKERLANek konpromisoa hartzen du ingurumena errespetatzeko, kutsadurari aurrea hartuz eta bere jardueraren ondoriozko ingurumen-inpaktuak kontrolatzeko eta murrizteko neurriak ezarriz.

<https://www.ikerlan.es/eu/politika-egiaztagiriak>

Bere jardueraren izaera dela eta, IKERLANek ez du eragin zuzen nabarmenik ingurumenean. Hori dela eta, ingurumen-arloko bere ekimenen ardatza bere instalazioetan energia aurrezte eta sortutako hondakinen kudeaketa egokia bultzatzea da.

2025. urtean, ingurumena zaintzeko konpromisoari eutsiz, IKERLANen Mugikortasun-Planean ezarritako ekintza-plana hedatzen jarraitu da, lantokirako joan-etorrien inpaktu negatiboa murrizteko, garraibidea modu eraginkorragoan eta arrazoizkoagoan erabiliz.

Telelanaren eta egoitza malguaren politikari eutsi zaio, eta, hala, lantokirako joan-etorriak murriztu dira.

IKERLANek bere elektrizitate-kontsumoaren inpaktua murrizteko ekimenak ere egiten ditu, energia berriztagarriak erabiliz, autokontsumoa bultzatuz eta instalazioak kontsumo gutxiagokoengatik berrituz.

2025az geroztik, IKERLANek bateria-sorta bat du, 75 kWh gordetzeko gaitasuna duena. Horri esker, instalazio fotovoltaiakoak sortutako energia-soberakina aprobetxa daiteke. Zehazki, seriean konektatutako baterien hamahiru modulu dira, 749 V-eko tentsio izendatua lortu arte,

eta kontrol-modulu bat gehitu zaio (konexio-kontrola, bateriaren kontrola). IKERLANeko sarera konektatzeko, bi noranzkoko inbertsore bat instalatu da (92 kVA). Horri esker, gaur egun instalatuta dagoen biltegitratze-ahalmena bikoiztu egin daiteke.

IKERLANek Urora Power, S.L. sozietatearen kapitalean parte hartzen du, energia elektriko berriztagarria sortzeko instalazio fotovoltaiako bat martxan jartzeko. Ekimen hau MONDRAGON taldeko enprekin batera garatu da.

IKERLANek beharrezko baliabideak mantentzen eta praktikan jartzen ditu materialen birziklapena errazteko: paperezko edukiontziak, hondakinak botatzeko edukiontzi selektiboak. Gainera, bateriak birziklatzeko edukiontzi espezifikoak ditu. Hondakinak kudeatzaile ziurtatuen bidez tratatzen dira.

Elektromugikortasuna sustatzeko, IKERLANek enpresako auto elektrikoko bat du, eta hiru kargagailu elektriko ditu bere instalazioetako aparkalekuan.



PROIEKTU JASANGARRIAK

IKERLANek, teknologia transferitzera eta gizarteari onurak ekartzera bideratutako zentro teknologikoa den aldetik, energiaren eta ingurumenaren arloan trantsizio jasangarria lortzen laguntzen duten proiektuetan parte hartzen du. Horien artean, IKERLAN buru duten proiektu hauek nabarmentzen dira:



MaaS

www.maasai-project.eu

Agile Manufacturing as a Service through AI Autonomous Agents

Proiektuaren helburua da MaaSAI sistema garatzea. Plataforma digital integral bat da, ekoizpen-gaitasunen hornitzaileen eta manufaktura-enpresen arteko interakzioak automatizatzeko eta optimizatzeko diseinatua, Zerbitzu gisako fabrikazio-ekosistema baten barruan (MaaS). Hodeiko merkatu digitalaren eta tresna espezifiko bidez, fabrikazio-gaitasunez buruzko negozioak arinak, eraginkorrak eta gardenak ahalbidetzen ditu sistemak hornitzaileen eta fabrikatzaileen artean, Adimen Artifizial Azalgarrian (xAI) eta datuak denbora errealean modu seguruan trukatzeko oinarrituta.

Proposatutako MaaS ikuspegiari esker, enpresek ekoizpen-gaitasun malguak eta deszentralizatuak eskura ditzakete, azpiegituran hasierako inbertsio handirik egin beharrik gabe, eta sarrera-oztopoak murrizten dira, bereziki ETE-entzat. Horrela, proiektuak paradigma aldaketa bultzatzen du Europako manufaktura-industrian, eredu kolaboratiboagoak, dinamikoagoak eta eskarira bideratuagoak bultzatuz.

Ingurumenaren eta iraunkortasunaren ikuspegitik, MaaSAIk eskariaren arabera ekoizpena sustatzen du, baliabideen erabilera optimizatzen duena eta gainproduktioari eta gaitasun industrialak gutxiegi erabiltzeari lotutako hondakinak murrizten dituena. Gainera, fabrikazio zirkularreko ereduak trantsizioa errazten du, berrerabilpena, birmanufaktura eta balio-katearen integrazio hobea sustatuz. Eraginkortasun operatiboa hobetu eta aktibo produktiboak modu arrazionalagoan eta partekatuagoan erabiltzeko aukera ematen duenez, proiektuak industriaren energia-kontsumoa eta ingurumen-aztarna murrizten laguntzen du, jasangarritasunaren eta trantsizio ekologikoaren Europako helburuekin bat eginez.

Partaideak:

- Ethniko Kentro Erevnas Kai Technologikis Anaptyxis (KOOORDINATZAILEA).
- Universitat Politècnica De València
- UNINOVA - Instituto De Desenvolvimento De Novas Tecnologias.
- Ikerlan.
- TAU - Tampereen Korkeakoulusaatio SR.
- UNIVPM - Università Politecnica Delle Marche.
- Exos Solutions.
- DREVEN- Draxis Research Ventures Astiki Mi Kerdoskopiki Etairia.
- Clesgo.
- IDEA - Informatics, Domotics, Environment, Automation.
- Singularlogic
- Laboratoire Virtuel Européen Dans Le Domaine De L'interopérabilité Des entreprises.
- Fundingbox Accelerator.
- DIN Deutsches Institut Für Normung.
- Pravo I Internet Foundation.
- Factor Ingeniería Y Decoletoje.
- Tasowheel.
- Bio4dreams.
- Barba Stathis.
- E4m.





Ai-based testing pyramid towards virtual certification of next-gen composite aerostructures (PAIRAMID)

Industria aeroespazialak erronka handiei egin behar die aurre material berrietan oinarritutako aireontzien osagai berriak merkatutzeko garaian. Gaur egungo ikuspegiak eragozpen handiak ditu, hala nola maila bateko aldaketek aeroegituraren errendimendu globalean duten eraginari buruzko informazio falta. Aldaketak egiten direnean ziurtatze-prozesuaren zati handi bat errepikatu beharrak eragin handia du jasangarritasunean. Industria aeronautikoak ziurtagiri konplexuak, luzeak eta garestiak behar ditu, eta, neurri handi batean, saiakuntza fisiko garestiak egin behar dira. Saiakuntza horiek errepikatu egin behar dira aldaketak egiten badira, baita txikiak badira ere.

Erronka horiei aurre egiteko, proba birtualetan oinarritutako ikuspegi iraultzailea proposatzen du pAlramid proiektuak, eta, horretarako, tresna digital bat sortzen du, zeinak konbinatzen baititu adimen artifiziala eta simulazio-metodoak, test fisikoen emaitzak eta dauden datuak. AAean oinarritutako piramide hibrido honek saiakuntza-maila desberdinen arteko hesiak hausten ditu, ezagutzen transferentzia errazten du, diseinuaren iterazioak arintzen ditu, akatsak eta ingurumenean duten eragina murriztuz.

Proiektua lau erabilera-kasuk osatzen dute, eta aeroegituretara aplikatutako material konposatuen (termoegonkor funtzionalizatuak eta termoplastikoak) propietateekin lotutako teknologien aurrerapenean zentratuko dira.

Partaide batzuk:

- Ikerlan (KOORDINATZAILEA).
- Institut De Recherche Technologique Jules Verne.
- Inegi.
- Universitat De Girona.
- Fundación Gaiker.
- Brunel University London.
- Meca.
- LKS.



www.zdzw-project.eu

Non-destructive inspection services for digitally enhanced zero waste manufacturing (ZDZW)

ZDZW-ek ikuskaritza digital ez suntsitzaileko (NDI) zerbitzuak garatzen ditu, Europako industrien produkzioaren eraginkortasuna, akatsik eza eta fabrikazio jasangarria hobetzeko teknologia estrategikoen multzo gisa.

Helburu nagusia fabrikazio-prozesuetan sortutako akatsak eta hondakinak murriztea da. ZDZWk fabrikazio-prozesu osoan eta produktuaren bizi-zikloan akatsak minimizatzeari eta hondakinak murrizteari ekiten dio.

ZDZWk zero akats (ZD) eta zero hondakin (ZW) ikuspegia erakutsiko du hondakinak murrizteko potentzial handia duten ekoizpen-prozesuei buruzko 6 proiektu pilotutan (injekzio bidezko moldekatzea, termoformazioa, soldadura eta pintura, indukzio bidezko gogortzea, litografia eta ontziratzea).

Partaide batzuk:

- Ikerlan (KOORDINATZAILEA).
- Lithoz.
- Dira.
- Information Catalyst.
- GRI Towers Galicia.
- Matz-Erreka.
- Siemens.
- Illy.
- Fraunhofer IGD.



www.hypobatt.eu

HYper POwered vessel BATtery charging system

Garraio-sektoreak CO₂-aren emisioen % 23 inguru sortzen du, eta, beraz, klimarentzat kaltegarriak diren berotegi-efektua eragiten duten gasen iturri garrantzitsua da. Errepideko eta aireko garraioaren ondoren, munduko CO₂ emisioen zati handi bat itsasoko garraioari dagokio. Beraz, klima errespetatuko duen etorkizun baterako bidean, ezinbestekoa da emisio horiek murrizteko moduak aurkitzea.

Europako HYPOBATT proiektuak Europako itsas sektoreko 18 eragile garrantzitsu bildu ditu. Helburua da itsasontzientzako karga azkarreko sistema bat garatzea eta aukeratutako lekuetan erakustea. Hasiera batean, Norddeich eta Norderney portuen arteko transbordadore zerbitzua elektrifikatuko dute, Alemaniako iparraldean. Horretarako, HYPOBATTek hainbat megawatteko karga-sistema modular, azkar eta erraz bat hornituko du, ontziak karga-estaziora konektatu eta porturatu ondoren oso denbora gutxian kargatzeko. Portuetako karga-estazioek izango duten modulartasuna dela eta, elektrifikatutako portuko ibilgailuek azpiegitura hori erabili beharko lukete hurrengo etapetan ere, eta, hala, portu bateko CO₂-aren balantze globala murriztu egingo litzateke.

Proiektuaren beste helburu batzuk dira transbordadoreetarako karga azkarreko sistema estandarizatzea eta bateria bidez propulsatutako ontzietarako negozio-eredu berriak garatzea, etorkizunean beste leku batzuetan transbordadore elektrikoen eragiketarako seguruagoak, azkarragoak eta jasangarriagoak izan daitezkeen.

Partaideak:

- Ikerlan (KOORDINATZAILEA).
- Heliox bv.
- Fundación de la Comunidad Valenciana para la investigación, promoción y estudios comerciales de Valenciaport.
- Rina Services Spa.
- Reliability And Safety Technical Center.
- Brussels Research And Innovation Center For Green Technologies.

- Fundación Centro Tecnológico Soermar.
- Flanders Make.
- Imecar Elektronik Sanayi Ve Ticaret Limited Sirketi.
- Commissariat A L Energie Atomique Et Aux Energies Alternatives.
- Rhoe.
- Stemmann-Technik GmbH.
- Technische Hochschule Ingolstadt.
- Fundacja Motus.
- Aktiengesellschaft Reederei Norden- Frisia.
- Damen Research Development & Innovation Bv.
- Otaski Energy Solutions Ltd.
- University Of Strathclyde.



KLIMA ALDAKETA ETA BESTE KUTSADURA MOTA BATZUK

Karbono-emisioak murrizten lagundu du IKERLANek 2025ean, Olandixoko eraikineko estalkian instalazio fotovoltaikoak sortutako energiaren autokontsumoaren bidez eta jatorri berriztagarriko bermea duen sareko energia kontratatuz. Horren guztiaren ondorioz, 2025ean BEGen emisioak 2. irismenean ZEROn mantendu dira. 1. irismeneko BEGen emisioak % 51,27 murriztu dira, neurri handi batean, gure errekuntza-laborategia erabiltzen duten transferentzia-proiektuetan jarduera gutxiago egin delako.

Taula honetan, berotegi-efektuko gasen (BEG) zuzeneko emisioak (1. irismena) eta energia elektrikoa erostean sortzen diren zeharkako BEGen emisioak (2. irismena) aurkezten dira:

BEG EMISIOAK (TC02EQ)	2025	2024	2023	BARIAZIOA 2024-2025 (%)
1. IRISMENA	42,58	87,38	49,81	% -51,27
2. IRISMENA	0	0	0	% 0
GUZTIRA (tc02eq)	42,58	87,38	49,81	% -51,27

KARBONO AZTARNA KORPORATIBOA ITURRIKA(% TC02EQ)	2025	2024	2023	BARIAZIOA 2024-2025 (%)
1. IRISMENA Erregaia	% 100	% 100	% 100	% 0
2. IRISMENA Elektrizitatea	% 0	% 0	% 0	% 0
GUZTIRA	% 100	% 100	% 100	% 0

BEGen emisioen intentsitatea

2025. urtean, 2024. urtearekin alderatuta, gas-kontsumoa izugarri murriztu denez, berotegi-efektuko gasen emisioak % 51 baino gehiago jaitسي dira.

BEG EMISIOEN RATIOA	2025	2024	2023	BARIAZIOA 2024-2025 (%)
BEG EMISIOAK (TC02EQ)	42,58	87,38	49,81	% -51,27
FAKTURAZIOA (K€)	34.041	33.078	30.792	% 2,91
BEG EMISIOAK (TC02EQ) / FAKTURAZIOA (K€)	% 0,13	% 0,26	% 0,16	% -52,65

Emisio horiek Berotegi Efektuko Gasen Emisioen Inbentario Nazionalaren arabera kalkulatu dira (V. eranskina, 2025eko edizioa), gas naturalerako 56,03 tCO2/TJ emisio-faktore ofiziala eta 1 GWh = 3,6 TJ bihurtuta aplikatuta.

Kutsadura

IKERLANek, duen jarduera-motagatik, ez du beste emisio atmosferikorik sortzen, hala nola NOx, SOx, poluitzaile organiko lurrunkorrak (COV) eta abar.

EKONOMIA ZIRKULARRA ETA HONDAKINEN PREBENTZIOA ETA KUDEAKETA

Hondakinak

IKERLANen instalazioetan sortutako hondakin guztiak baimendutako hondakin-kudeatzaileei ematen zaizkie, behar bezala tratatzeko.

SORTUTAKO HONDAKINEN BOLUMENA MOTAKA (KG)	2025	2024	2023	BARIAZIOA 2024-2025 (%)
Hondakin ez-arriskutsuak	12.516	45.090	47.700	% -72,24
Hondakin arriskutsuak	2.611	1.802	2.602	% 44,89
GUZTIRA	15.127	46.892	50.302	% -67,74

2025ean, hondakin arriskutsuen ekoizpena handitu egin da, eta igoera hori mugikortasun elektrikoarekin oso lotuta dago, loi Litio pilak eta bateriak erabiltzen baitira. Hondakin ez-arriskutsuek nabarmen egin dute behera, 2024an IKERLANen egoitzetako espazioak egokitzeko obra garrantzitsuak amaitu baitziren.

EZABATZE-METODOA (%)	2025	2024	2023	BARIAZIOA 2024-2025 (%)
HONDAKIN EZ-ARRISKUTSUAK Berreskuratze-eragiketak				
Azken balorazio ezezaguna	% 100	% 100	% 100	% 0
Ezabatze-eragiketak				
Azken ezabatze ezezaguna	% 0	% 0	% 0	% 0
HONDAKIN ARRISKUTSUAK Berreskuratze-eragiketak				
Azken balorazio ezezaguna	% 95	% 85	% 94	% -10
Operaciones de eliminación				
Azken ezabatze ezezaguna	% 5	% 15	% 6	% 5

BALIABIDEEN ERABILERA JASANGARRIA

Ura

IKERLANek ez duenez ur-kontsumoa eragiten duen ekoizpen-prozesurik, kontsumo bakarra erabilera sanitarioari dagokiona da. Hala ere, 2025ean uraren erabilera nabarmen igo da.

EREMU GUZTITAKO UR-KONTSUMOA(M3)	2025	2024	2023	BARIAZIOA 2024-2025 (%)
KONTSUMITUTAKO UR BOL.	2.681	1.847	1.641	% 45,15

Lehengaiak eta materialak

IKERLANek ez du lehengai-kontsumo handia eskatzen duen ekoizpen-prozesurik. Bulegoko lanetarako erabiltzen den papera da kontsumo aipagarri bakarra. 2025ean hautemandako beherakada nabarmena, batetik, barne-prozesuetan teknologia gero eta gehiago erabiltzearen ondoriozko bilakaerari zor zaio, eta, bestetik, aurreko urteetan ekitaldi esanguratsuak gertatu ziren, hala nola papertegiko materiala berritzera behartu zuten 50. urteurreneko ospakizuna.

MATERIALEN ETA LEHENGAIEN KONTSUMOA (PISUA EDO BOL.)	2025	2024	2023	BARIAZIOA 2024-2025 (%)
MATERIALEN KONTSUMOA Material berriztagarriak				
Papera (kg)	350	522,5	702,5	% -33,01

Energia

Garapen jasangarriarekin duen konpromisoarekin bat etorritz, IKERLANen energia elektrikoaren % 100 energia berriztagarrietatik dator.

ENERGIA-KONTSUMOA ITURRIAREN ARABERA (MWH O GJ)	2025	2024	2023	BARIAZIOA 2024-2024 (%)
ELEKTRIZITATEA	1.058,50	1.206,17	959,77	% -12,24
GAS NATURALA	211,09	480,09	272,70	% -56,03
GUZTIRA	1.269,59	1.686,26	1.233,47	% -24,71

2025ean, nabarmen murriztu da elektrizitate-kontsumoa, % 12 baino gehiago.

Instalazio fotovoltaiakoak 95.833 kWh sortu ditu 2025ean, eta horrek sareko energiaren kontsumoa % 14 murriztea ekarri du Olandixoko egoitzan.

OLANDIXOKO EGOITZA



Kontsumitutako energia

568.321 kWh



Energia FB.
95.833 kWh



Sare-energia
489.740 kWh

14 % Energia FB Autokontsumitua

86 % Sare-energia

03. Langileei buruzko informazioa

IKERLAN eredu sozio-enpresarial arrakastatsu bat finkatzera orientatuta dago, pertsona ilusionatu eta konprometituetan oinarritua, bere ingurunea eraldatuz eta MONDRAGONen esperientzia kooperatiboa aberastuz.

IKERLANek zentro teknologiko gisa duen bilakaera bere giza taldearen gaitasunaren, bere aktibo nagusia, eta bere antolaketa-egituraren arabera da, eta biek langileekin, bazkideekin, enpresa bezeroekin eta interes-taldeekin hartutako konpromisoak betetzea dute helburu.

IKERLANeko Pertsonen politikak misio hori lortzen lagundu nahi dute, praktikarik onenak eginez hainbat arlotan, hala nola talentua erakartzea, karrera profesionala garatzea, ordainsaria, lan-ingurunea eta karrera profesionala amaitzeko laguntza, erretiro aurreraturako laguntza-plan baten bidez.

IKERLANek hiru helbururekin hedatzen ditu Pertsonen politika horiek:

- IKERLANen lan egiten duten pertsonen beharrak eta gaitasun teknikoak eta giza gaitasunak planifikatzea eta kudeatzea.

- Berrikuntzaren kultura sortzea, sormena, ikaskuntza eta ezagutza bateratzea sustatuko dituen antolamendu-kohesioko ingurune batean.
- Etorkizuneko apustuekin lerrokatutako erakundea lortzea, motibatutako eta proiektu komun iraunkorrek konprometitutako pertsona-talde batekin.

2018. urteaz geroztik, gainera, gatazkak konpontzeko protokolo bat du IKERLANek. Protokolo hori 2025ean berrikusi eta eguneratu da, eta pertsonen arteko gatazka-egoerak prebenitzeko eta tratatzeko printzipio argi eta eraginkorrak ezartzen ditu. Protokolo honen helburua da IKERLANi eta bere langileei laneko jazarpeneko gatazka-egoerak kudeatzen lagunduko dien prozedura bat izatea, protokolo horiek martxan jartzen dituzten pertsonen intimitatea, konfidentzialtasuna eta babesa bermatuz.



ENPLEGUA

Azken urteotan IKERLANek hazkunde-fase bat izan badu ere, 2025ean aurretik lortutako garapena finkatu eta zaintzeko erabakia hartu du erakundeak, egonkortze-aldia erakutsiz. Enpleguaren alorrean islatzen da hori: 2025eko abenduaren 31n, 342 langile zituen IKERLANek, aurreko urteko data berean baino % 3,39 gutxiago.

LANGILE KOPURUA SEXUAREN ARABERA	2025	2024	2023	BARIAZIOA 2024-2025 (%)
EMAKUMEAK	97	102	104	% -4,9
% EMAKUMEAK	% 28,36	% 28,81	% 30,06	% -0,45
GIZONEZKOAK	245	252	242	% -2,78
% GIZONEZKOAK	% 71,64	% 71,19	% 69,94	% 0,45
GUZTIRA	342	354	346	% -3,39

IKERLANen enplegua gizonezkoena da gehienbat. Datu horren azalpena erraz aurki daiteke karrera teknologikoak ikastearen alde egiten duten emakumeen portzentaje minoritarioan. Nahiz eta 2023an arau ospetsuan mantendu ginen (emakumeen % 30 eta gizonen % 70), hori baita unibertsitate teknikoetako irudia, azken urteotan zifra pixka bat desorekatu egin da, 2024an, % 1,25 emakume gutxiagorekin, eta 2025ean % 1,64 emakume gutxiagorekin (2023ko % 30etik).

Jarraian, pertsona kopurua zehazten da, lan-kategoriaren arabera:

	2025	2024	2023
ZUZENDARITZA	8	8	7
ZERBITZU OROKORRETAKO ARDURADUNA	14	13	11
JAKINTZA ALORREKO ARDURADUNAK	6	6	7
ESPEZIALIZAZIO LANTALDEKO ARDURADUNA	19	19	16
IKERTZAILEAK	211	223	221
IKERTZAILE DOKTOREGAIA	44	44	43
TEKNIKARIAK ETA ADMINISTRARIAK	40	41	40

Kolektiboaren adin-piramideari erreparatuz gero, eta kategoria profesionalaren arabera segmentatuz gero, ikusten da bat datorrela lanpostu bakoitza modu egokian betetzeko behar diren esperientzia-urteekin. Beraz, ondorio hauek ateratu daitezke:

- Zuzendaritzako eta erdi-mailako ardurako postuak arrakastaz betetzeko behar den esperientzia dela eta, ez dago postu horiek betetzen 30 urtetik beherakorik.
- Zuzendaritza-postuen % 25 30 eta 50 urte bitarteko pertsonak betetzen dituzte, eta gainerako % 75a 50 urtetik gorakoek.
- Erantzukizun ertaineko postuak %74,36an 30 eta 50 urte bitarteko pertsonak betetzen dituzte, eta %25,64an 50 urtetik gorakoek.
- Erantzukizun ertainekoak edo zuzendaritzako karguak ez diren lanpostuei dagokienez, % 38,98 30 urtetik beherakoek betetzen dituzte, eta % 47,46 30 eta 50 urte bitarteko langileek. Gainerako % 13,56a 50 urtetik gorako langileek betetzen dute.

LANGILE ZB. ETA % SAILKAPEN PROFESIONALAREN ETA ADIN TALDEAREN ARABERA	2025		2024		2023	
	zk.	%	zk.	%	zk.	%
ZUZENDARITZA KARGUAK	8		8		7	
30 urtetik beherakoak	-	-	-	-	-	-
30 eta 50 urte bitartekoak	2	% 25	4	% 50	3	% 42,9
50 urtetik gorakoak	6	% 75	4	% 50	4	% 57,1
ERANTZUKIZUN ERTAINEKO KARGUAK	39		38		34	
30 urtetik beherakoak	-	-	-	-	-	-
30 eta 50 urte bitartekoak	29	% 74,36	29	% 76,32	27	% 79,41
50 urtetik gorakoak	10	% 25,64	9	% 23,68	7	% 20,59
GAINERAKO LANGILEAK	295		308		305	
30 urtetik beherakoak	115	% 38,98	127	% 41,23	121	% 39,67
30 eta 50 urte bitartekoak	140	% 47,46	138	% 44,81	143	% 46,89
50 urtetik gorakoak	40	% 13,56	43	% 13,96	41	%13,44



Generoaren banaketa kategoría profesionalaren arabera aztertuz gero, zuzendaritza-karguetan aurreko urtearekin, 2024arekin, alderatuta mantentzen dela ikus daiteke. Erdi mailako ardura duten karguetan pertsona bat gehiago dago, emakumeen kopurua bi gehiagora aldatzen da eta gizonena bat gutxiagora.

LANGILE-KOPURUA ETA EHUNEKOA, SAILKAPEN PROFESIONALAREN ETA SEXUAREN ARABERA	2025		2024		2023	
	zk.	%	zk.	%	zk.	%
ZUZENDARITZA KARGUAK	8		8		7	
Emakumeak	2	% 25	2	%25	2	%28,57
Gizonezkoak	6	%75	6	%75	5	%71,43
ERANTZUKIZUN ERTAINEKO KARGUAK	39		38		34	
Emakumeak	15	%38,46	13	%34,21	10	%29,41
Gizonezkoak	24	%61,54	25	%65,79	24	%70,59
GAINERAKO LANGILEAK	295		308		305	
Emakumeak	80	%27,12	87	%28,25	92	%30,16
Gizonezkoak	215	%72,88	221	%71,75	213	%69,84

Kontratazio mugagabearen kopuruari dagokionez, kontratuen % 95,03 mugagabeak dira, eta % 100 lanaldi osoko kontratuak dira. Azpimarratzekoa da aldi baterako kontratuen %4,68 praktika profesionala lortzeko kontratuei dagozkiela, junior pertsoneri aukerak eskaintzera bideratuak. Kontratu horiek, gerora, kontratu mugagabe bihurtu ohi dira, eta, hala, zentroan talentu berriak modu egonkorrean sartzea errazten da.

KONTRATU MOTEN KOPURUA ETA BANAKETA (ABENDUAREN 31N)	2025	2024	2023	BARIAZIOA 2024-2025 (%)
KONTRATAZIOAK				
Mugagabea	% 95,03	% 90,96	% 86,42	% 4,07
Aldi baterakoa	% 4,68	% 9,04	% 13,58	% -4,36
Birkokatua	% 0,29			% 0,29
LANALDIA				
Osoa	% 100,0	% 99,72	% 100,0	% 0,28
Partziala	% 0,0	%0,28	% 0,0	% -0,28

Jarraian, kontratu mugagabeen kopurua jasotzen da, sexuaren, adinaren eta sailkapen profesionalaren arabera banatuta:

KONTRATU MUGAGABEAK ABENDUAREN 31N	2025	2024	2023	BARIAZIOA 2024-2025 (%)
SEXUAREN ARABERA				
Emakumeak	% 28,92	% 30,43	% 29,77	% -1,52
Gizonezkoak	% 71,08	% 69,56	% 70,23	% 1,52
ADINAREN ARABERA				
30 urtetik beherakoak	% 30,77	% 30,12	% 28,76	% 0,65
30 eta 50 urte	% 52,31	% 52,48	% 53,85	% -0,17
50 urtetik gorakoak	% 16,92	% 17,39	% 17,39	% -0,46
SAILKAPEN PROFESIONALAREN ARABERA				
Zuzendaritza karguak	% 2,46	% 2,48	% 2,34	% -0,02
Erantzukizun ertaineko karguak	% 12	% 11,49	% 11,04	% 0,51
Gainerako langileak	% 85,54	% 86,02	% 86,62	% -0,48



Datu horiek hobeto uler daitezke talde bakoitzaren xehakapenari erreparatuz gero, kontratu mugagabe guztien % 71,08 gizonezkoen kolektiboari baitagozkio. Ehuneko horiek bat datoz gaur egun dagoen generoaren arabera kontratazio-banaketarekin.

Kategoria profesionalari dagokionez, zuzendaritzako eta erantzukizun ertaineko lanpostuen % 100ek kontratu mugagabeak dituzte. Gainerako lanpostuetan egiten dira aldi baterako kontratuak.

Kontratu mugagabeen bolumen handiena (%52,31) 30 eta 50 urte bitarteko kolektiboan dago, eta, ondoren, 30 urtetik beherako kolektiboan (%30,77). Kontratu mugagabea duten 50 urtetik gorakoak langileen %16,92 dira. Horren arrazoi nagusia da hazten ari den erakundea garela, eta batez ere 30 urtetik beherako gazteak sartzen direla. Aurre-erretiroko plan bat dugu, IKERLANetik gazte ateratzea sustatzen duena, eta gazteei lekua uzten diena.

Ondorioz, aldi baterako kontratuen bolumena sexuaren, adinaren eta sailkapen profesionalaren arabera banatzen da, honela:

ALDI BATERAKO KONTRATUAK ABENDUAREN 31N	2025	2024	2023	BARIAZIOA 2024-2025 (%)
SEXUAREN ARABERA				
Emakumeak	% 12,5	% 12,5	% 31,91	% 0,0
Gizonezkoak	% 87,5	% 87,5	% 68,09	% 0,0
ADINAREN ARABERA				
30 urtetik beherakoak	% 93,75	% 93,75	% 74,47	% 0,0
30 eta 50 urte bitartekoak	% 6,25	% 6,25	% 25,53	% 0,0
50 urtetik gorakoak	% 0,0	% 0,0	% 0,0	% 0,0
SAILKAPEN PROFESIONALAREN ARABERA				
Zuzendaritza karguak	% 0,0	% 0,0	% 0,0	% 0,0
Erantzukizun ertaineko karguak	% 0,0	% 3,13	% 2,13	% -3,13
Gainerako langileak	% 100	% 96,88	% 97,87	% 3,13



2021/12/31ko lan-erreforma indarrean sartzearekin batera, aldi baterako kontratuen murrizketa nabari da. Aurreko tauletan “aldi baterako” kontratu gisa sailkatuta ageri diren kontratu gehienak gaur egun doktoretza-tesia IKERLANen egiten ari diren pertsonen edo prestakuntza-izaerako lan-kontratuei dagozkio. Kontratu horiek Espainiako lan-araudian araututa daude, gazte lizentziadun edo tituludunek egin dituzten ikasketa- edo prestakuntza-mailarako egokia den praktika profesionala lor dezaten. Horrenbestez, lan-merkatuan sartzen laguntzen dute. Praktika profesionaleko kontratu horien gehieneko iraupena ez da urtebetetik gorakoa izango.

Erakartze politika

IKERLANek, zentro teknologikoa denez, bere kooperatiba-eredua eta misioa (euskal industriara goi-mailako prestakuntza duten profilak transferitzea) kontuan hartuta, pertsonak erakarri, hautatu eta integratzeko fluxu etengabea behar du, ikerketa-jardueretan eta ezagutza sortzeko jardueretan aurrera egiten laguntzeko.

2015ean, jada, zailtasunak ikusten hasi ziren enpresak eskatutako bolumena eta profila erakartzeko orduan. Azterketa bat egin ondoren, ondorioztatu zen orain arte erabili izan diren kanalak ez direla nahikoa enpresaren behar guztiak asetzeko.


Agertokia nabarmen aldatu da 2018tik hona, eta 2025ean ere ildo beretik jarraitu du joerak. Erakarpen- eta hautaketa-prozesuak are gehiago zaildu dira, batez ere, IKERLANen kontratazio-beharra gero eta handiagoa delako: IKERLANek gai oso espezifiko eta hasiberrietan (zibersegurtasuna eta adimen artifiziala) edo ez hain konbentzionaletan (indukzioa eta EMC) espezializatzeko apustua egin du, eta horrek zaildu egiten du eskatzen den arloan esperientzia duten profil batzuk kontratatzea. Biztanleria aktiboa gutxitzea, gai teknikoetan trebatutako pertsonen eskasia eta digitalizazioaren aldeko apustua, 4.0 industriaren eraldatzea, eta Adimen Artifiziala bezalako teknologia berriak sartzeari, hori guztia STEM profilak (Zientzia, Teknologia, Ingeniaritza eta Matematikak) gero eta gehiago eskatzea eragiten ari da.

Langileak erakartzeko prozesua gero eta konplexuagoa zenez, IKERLANek hausnarketa bat egin zuen, eta horren emaitza 2020-2024 aldirako erakartze-planeari islatu zen. Plan horrek lau erronka nagusi zituen:

- Pertsonak erakartzeko gaitasuna hobetzea, IKERLAN lan egiteko edo trebatzeko leku erakargarriagoa/desiratuagoa izan dadin.
- Gure harrobia indartzea, profil onenekin etengabe elikatze aukera emango digun lankidetzaren sare bat garatuz.

- Erakartze dibertsifikatuko tresna/kanal multzo bat garatzea eta mantentzea.
- Hautaketa-prozesuak indartzea, balio handiagoa emateko.

Gako horietatik abiatuta, metodologia propio bat diseinatu zen, erabiltzailearen esperientzia lehenengo harremanetik hobetzeko asmoz, eta langileak enpresan zuen bizi-ziklo osoa hartu zuen. Metodologia honek gure *modus operandi*-a jasotzen du hurrengo lau faseetan:



Lan hori 2024. planetik harago mantendu da, eta beharrezko doikuntzak egin dira IKERLANen lau jardura-esparru horiek indartzen jarraitzeko, baina lan egiteko modu bat bihurtu da, 4 urterako ekintza-plan bat baino gehiago.

Metodologia horren ondorioz, 45 hautaketa-prozesu itxi dira 2025ean, eta harrobia da IKERLANen pertsonak sartzeko iturri nagusietako bat.



Garapen profesionala

Azken urteotan, IKERLAN ahalegin handia egiten ari da pertsonak kudeatzeko bere politika IK2024 Plan Estrategikoan trazatutako esparru estrategikoaren barruan definitu eta garatzeko. Esparru estrategiko horrek zentzu berezia du ondorengo IK2027 planean eta onartu berri den IK2029 planean. Alde horretatik, Pertsonak Kudeatzeko Sistema Integral bat diseinatu dugu, pertsonaren ibilbide profesional osoa hartzen duena, eta helburu bikoitzean eboluzionatzen jarraitzea izan duena ardatz:

- GARATZEN garatzea (IKERLANeko Garapen Profesionalerako Sistema).
- Karrera Profesionaleko plan berri bat definitzea, 109/2015 Dekretuaren eskakizunetara egokitzea ahalbidetuko duena.

GARATZEN IKERLANen **Pertsonak Kudeatzeko Sistema Integralean (SIGP)** integratzen da eta prozesu giltzarria da horren barruan.



Garapen profesionala da IKERLANeko alderdi garrantzitsuenetako bat, haren Estatutu Sozialetan jasotzen denez:

“IKERLANeko pertsonengan gizarteari zerbitzua emateko bokazioa sustatuko da eta, horrekin batera, etengabeko prestakuntzaren bitartez, lanbide eta giza garapenean haziz, maila indibidualean eta kolektiboan asebetetzea bilatuko da; hori guztia berdintasun eta erantzukizun giroan, elkartasuna, partaidetza, demokrazia eta autogestioaren alde jardunez eta, kapitalaren gaintetik, lana lehenetsiz”, IKERLANeko Estatutu Sozialak, 2.2 artikulua.

Pertsonok profesionalki garatzen gara hobetzen ahalegintzen garen neurrian eta gure lanarekin lotutako erronka berriei ekiten diegun neurrian.

Prozesu natural hori indartu egin daiteke garapena bultzatzen eta bizkortzen duen sistema baten bidez.

Hori da, hain zuzen ere, GARATZENen, IKERLANeko Garapen Profesionalerako Sistemaren, helburua. Balio handiagoa ematen eta hazten laguntzea du helburu, bai banaka, bai erakunde mailan. IKERLAN Proiektuarekiko pertsonen gogobetetzea, konpromisoa eta lerrokatzea hobetu nahi ditu GARATZENek. Pertsonok gusturago eta konprometituago sentitzen gara informatuta gaudenean, kontuan hartzen gaituztenean, balioa ematen dugula sentitzen dugunean eta horregatik onartzen gaituztenean. Ondorioz, IKERLAN proiektua sendotu eta IKERLAN pertsona guztientzako lantoki erakargarriagoa bihurtu nahi du GARATZENek.

Gauzak horrela, GARATZENen etengabe hobetu behar den jardura bezala ulertzen dugu Garapen Profesionala, pertsona bakoitzari aplikatua eta pertsona bakoitza gure garapenaren arduradun izanik. Gure arduradunek, aldi berean, funtsezko rola betetzen dute prozesu horretan, eta beren kolaboratzaile bakoitzarekin garapen-plan bat definitzearen eta gauzatzearen ardura dute, baita beren arloan dituzten baliabideak behar bezala kudeatzearena ere.

IKERLANen pertsonaren ibilbide profesional osoa hartzen du GARATZENek. Lehen urteetan, kontratatu gisa, pertsonaren jarraipena / eta akonpainamendua eta haren espektatiben kudeaketa nabarmentzen dira. Helburua da pertsonak motibatuta eta konprometituta egotea, ahalik eta ekarpen handiena eginez. Ondoren, IKERLANen bazkide gisa egingo duen etapan (horixe da eskuliburu honen ardatza), GARATZENek erraztu egingo du pertsona oro haztea eta gehiago eta hobeto garatzea.

2024an, GARATZENen berrikuspen bat egin zen. Bertan, hobetu beharreko alderdiak bildu ziren inkesta espezifiko baten bidez, 4 *focus group* eginez, eta IKERLANeko arduradunekin bilerak eginez, eta prozesu batzuk birdiseinatu ziren honetarako:

- Pertsonen interesen bilketa indartzea, haien garapenerako funtsezko eragile baitira.
- Txantiloia sinplifikatzea eta maiztasuna doitzeta.
- Informazio garrantzitsua biltzeko sistema errazagoa jartzea, kudeaketa proaktiboagoa egin ahal izateko.
- Komunikazioa indartzea eta gauzatzeari bultzada bat ematea.

2025ean GARATZEN sisteman egindako azken aldaketen implementazioa kontuan hartuta, erronka bat sartu da IK26-IK29 Plan Estrategikorako, Garapen Profesionala eta Talentuaren Kudeaketa Estrategikoa izenekoak. Erronka honen helburua da pertsonen garapen profesionala eta ibilbide profesionalen identifikazio proaktiboa indartzen jarraitzea, GARATZENen bildutako informazioa oinarri hartuta. Pertsonen interesak eta IKERLANeko etorkizuneko beharrak ahalik eta ondoen uztartzea lortu nahi da.

Ordainsariak

IKERLAN MONDRAGON korporazioko kooperatiba da. Kooperatiba izanik, IKERLANeko Kontseilu Errektoreko eta Batzorde Betearazleko kideek eta gainerako organoetako kideek ez dute ordainsari espezifikorik jasotzen. Era berean, ez dute inolako kopururik jasotzen ordainsari aldakor gisa, dieta gisa, kalte-ordain gisa, epe luzerako aurrezki-aurreikuspeneko sistemei egindako ordainketa gisa, ez eta funtzio horrengatik jasotako beste edozein ordainsari gisa ere.

IKERLANek bi langile-profil ditu: batetik, bazkideak; bestetik, kontratatutako langileak. Enpresaren ordainsari-politikak desberdinak dira talde-motaren arabera:

Bazkide-taldea: kolektibo honen ordainsari-politika IKERLANeko Estatutu Sozialak, Barne Araudia, Plan Estrategikoa eta Antolakuntza Eredua gidari dituen **balorazio- eta ordainsari-sisteman (BOS)** jasotzen da.

BOSen ordainsari-politika aplikatzea errazten duten alderdi kontzeptualak, operatiboak eta arauemaileak zehazten dira. Helburua da profesionalik onenak erakartzea, garatzea eta leialtzea, erakunde gisa ditugun erronkei aurre egiteko, eta ordainsari ekitatiboa eta lehiakorria bermatzea, IKERLANek etorkizunean arrakasta izan dezan.

SVRa bat dator IKERLANek eskaintzen duen Karrera Planarekin eta Eusko Jaurlaritzak 109/2015 dekretuan zehaztutakoarekin. Soldata-eskalak profil profesional desberdinetan definituta daude, eta, gainera, lanpostu tipoetan banatzen dira. Lanpostu-mota bakoitzak eduki bat du, eginkizun berezi batzuk, eta gaitasun jakin batzuk eskatzen ditu.

Besteren Konturako Langileen Kolektiboa (TCA): kolektibo horren ordainsari-politika ere BOSen jasota dago. Ordainsaria urtero zehaztuko da, banaka, eta esperientziari eta eginkizunak betetzeari buruzko irizpideei soilik jarraituz.

Jarraian, 2025 urteko batez besteko ordainsari teorikoaren datuak aurkezten dira, adinaren, sexuaren eta sailkapen profesionalaren arabera, eta ekitaldiko soldata-arrakala sexuaren arabera:

BATEZ BESTEKO ORDAINSARIA (€)	2025	2024	2023	BARIAZIOA 2024-2025 (%)
SEXUAREN ARABERA				
Emakumeak	48.771,14	45.944,50	42.401,25	% 6,15
Gizonezkoak	49.529,26	47.930,67	45.471,59	% 3,34
ADINAREN ARABERA				
30 urtetik beherakoak	39.038,59	37.171,62	35.457,37	% 5,02
30 eta 50 urte	51.646,03	49.965,82	47.515,29	% 3,36
50 urtetik gorakoak	63.987,12	60.866,64	59.209,03	% 5,13
SAILKAPEN PROFESIONALAREN ARABERA				
Zuzendaritza karguak	88.622,37	84.555,26	83.051,04	% 4,81
Erantzukizun ertaineko karguak	64.929,21	62.095,49	60.785,42	% 4,56
Gainerako langileak	46.159,53	44.413,00	42.084,81	% 3,93

SOLDATA-ARRAKALA	2025	2024	2023	BARIAZIOA 2024-2025 [%]
SEXUAREN ARABERA				
Emakumeen soldata gordina/h	29,13 €/h	26,96 €/h	21,09 €/h	% 8,05
Gizonezkoen soldata gordina/h	29,33 €/h	27,85 €/h	22,63 €/h	% 5,31
Ratioa	99,32 €/h	96,80 %	93,19 %	% 2,60

IKERLANek soldata-arrakalari buruzko azterketa osagarriak egin ditu, eta ez dago generoaren arabera desberdintasunik postu berdinen artean; aitzitik, desberdintasunak lanpostuan lan egiten duten langileen antzinasunaren arabera dira. Hala ere, lanean jarraitzen dugu malgutasun-, kontziliazio-, prestakuntza-, garapen- eta konpentsazio-neurriak hartzeko, emakumeei erantzukizuneko lanpostuetarako sarbidea errazteko.

Beste konpentsazio-elementu eta onura batzuk:

Ordainsari aldakorra bazkide eta soldatapeko langileen artean banatzeko ordainsari-osagaia da, eta enpresak bere osotasunean lortutako emaitzekin lotzen da, zehazki, Soberakin Gordina / Salmentak ratioan lortutako lorpen-mailaren arabera.

Jantokiko bonua. IKERLANeko langile guztiek dute, nahi izanez gero, enpresako jantoki-bonu bat.

IKERLANek **Erretiro Aurreraturako Laguntza-Plan** bat du, Kooperatibako jarduera garaia baino lehen uztea eta IKERLANeko lan-bazkideen borondatezko erretiro aurreratua sustatzeko eta ahalbidetzeko, kasu bakoitzean legez eskatzen den erretiro-adina baino bost urte lehenago.

Bestalde, pertsonaren ongizatearekin lotutako eremuak gero eta garrantzitsuagoak dira talentuaren kudeaketan. Hori dela eta, langile guztiek doako laguntza-zerbitzua dute. Bazkide guztiek aseguru mediko pribatua dute beraientzat eta beren zuzeneko senideentzat. Era berean, 2025ean, 2022an martxan jarritako Stimulus zerbitzuarekin jarraitu da. IKERLANeko langile guztiei eta haien zuzeneko senitartekoei

entzuteko eta laguntza psikologikoa emateko zerbitzua da. Egunean 24 orduetan erabili daiteke, urteko 365 egunetan. Zerbitzu honek pertsona guztien bizi-kalitatea hobetzeko, oreka lortzeko eta eguneroko bizitzako erronkei (lanekoak, pertsonalak eta/edo familiarak) aurre egiteko laguntza eskaintzen du.

Gainera, 2025. urtean Zaindu Egunerok izeneko pilula jarri da martxan. Formatu horretan, mezu elektronikoko bat bidaltzen zaie talde osoari, eta Lourdes Tomás doktoreak prestakuntza-pilula bat partekatzen du bideoan, autozainketarekin lotutako gaiak jorratuz, hala nola loa, elikadura, kirola eta norberaren ongizaterako funtsezkoak diren beste alderdi batzuk. Pilula hauen helburua ohitura osasungarriak sustatzea eta egunerokotasunean norbere burua zaintzeak duen garrantziaz kontzientziazatzea da.

2025ean, fisioterapia digitaleko zerbitzu berritzailearekin ere jarraitu da. Zerbitzu hori 2023an jarri zen martxan, *Fisify* izenekoa, eta IKERLANeko pertsonak eskura dute plataforma informatiko bat, ariketa pertsonalizatuaren programekin, min jakin batzuk arintzeko, eremu espezifikoak saihesteko edo indartzeko, bai eta pertsonen ongizate fisikoa hobetzeari lotutako ariketa orokorren katalogo bat ere.

Bazkide beteranoei zein berriei trebakuntza-saioak ere eman zaizkie, kultura kooperatibista sustatzeko eta IKERLANeko helburua, balioak eta izaera soziala bultzatzeko. Besteren konturako langileekin ere egin dira saioak, eredu kooperatiboaren ezaugarriak ezagutu ditzaten eta etorkizunean bertan integratzeko aukera baloratu dezaten.

Aldi berean, espazio fisikoak birdiseinatzeari ekin zaio, irisgarritasuna errazteko eta lankidetzaren inguruneak sortzeko, non ongizatea eta ezagutza partekatutako onura izango baitira.

Lan-deskonexiorako politikak

IKERLAN arduratzen da profesional guztiek karrera osoa izateaz eta, aldi berean, beren behar pertsonalei erantzuteaz. Laneko deskonexio-politikan jasotzen denez, ezinbesteko kasuetan edo salbuespenezko egoeretan izan ezik, langileek eskubidea dute beren ohiko lan-ordutegitik kanpo mezu elektronikoei, deiei edo mezu pertsonalei ez erantzuteko. Gainera, Barne Araudian bizitza pertsonala eta lan-bizitza bateratzeko neurriak jasotzen dira, baimen eta/edo lizentzia espezifiko bidez familia-izaerako premia-erantzuteko zailtasunak gainditzeko bide gisa. Hauei buruzkoak dira: lan-ordutegiaren malgutasuna, astean bi egunetan telelana egiteko aukera, etxetik gertuen dagoen IKERLANeko egoitzan astean egun batean lan egitea, lanaldi-murrizketak, eta ordaindutako eta ordaindu gabeko baimenak.

Malgutasunaren kontzeptu hori banaka kudeatzen da, talde bakoitzean, merkatuaren eta ikerketaren urteko helburuak kontuan hartuta eta bezeroari arreta eta kudeaketa bermatuz.

Ezgaitasunak dituzten pertsonak

IKERLANek, ezgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorren testu bateragina onartzen duen azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuaren 42. artikuluan ezarritakoari jarraituz, lankidetzat hitzarmen bat du GUREAKEkin.

LANAREN ANTOLAKETA

Urteko lan-denbora normala Batzorde Betearazleak ezartzen du, IKERLANi elkartutako kooperatibetan aplikatutako irizpide orokorrak kontuan hartuta.

Enpresak 221 egun ditu irekita, eta, horri esker, urtean 30 opor-egun izan ditzake, eta horietatik 7 malguak dira, langileek nahi dutenean har ditzaten.

Lana antolatzeko sistemak aukera ematen dio langileari egunero, muga batzuen barruan, lanaldia hasteko eta amaitzeko ordua ezartzeko, bai eta bazkaltzeko denbora ezartzeko ere.

2025. urte honetan, langileen malgutasuna handitzen duten neurriei eutsi zaie: bi telelana egun daude baimendura, eta etxetik gertuen dagoen Egoitza Malguan astean egun batez lan egiteko aukera. Alde horretatik, 2025ean, 2024an bezala, IKERLANek 2023an Bilbon ireki zuen egoitza berriaren erabilera sustatu du, inguruan bizi diren pertsonen Egoitza Malguaren kontzeptuaz gozatzeko aukera izan dezaten.

Neurri horiek ezarri dira familia-arloko premia-erantzuteko zailtasunak arintzeko eta bizitza pertsonala eta lan-arlokoa uztartzea errazteko bide gisa.

Hona hemen zenbat langilek jaso duten guraso-baimena:

GURASO-BAIMENAK	2025	2024	2023	BARIAZIOA 2024-2025 (%)
GURASO-BAIMENA IZATEKO ESKUBIDEA IZAN DUTEN LANGILEAK	12	18	19	-33,33 %
Emakumeak	4	4	2	0 %
Gizonezkoak	8	14	17	-42,86 %
GURASO-BAIMENA HARTU DUTEN LANGILEAK	12	18	19	-33,33 %
Emakumeak	4	4	2	0 %
Gizonezkoak	8	14	17	-42,86 %
AURREKOETATIK, GURASO- BAIMENAREN ONDOREN LANPOSTURA BUELTATU DIRENAK	12	18	19	-33,33 %
Emakumeak	4	4	2	0 %
Gizonezkoak	8	14	17	-42,86 %
AURREKOETATIK, GURASO- BAIMENAREN ONDOREN LANPOSTURA ITZULI ETA 12 HILABETEREN ONDOREN ERAKUNDEAN JARRAITZEN DUTEN PERTSONAK	12	18	19	-33,33 %
Emakumeak	4	4	2	0 %
Gizonezkoak	8	14	17	-42,86 %
LANERA ITZULTZEAREN TASA	100 %	100 %	100 %	0 %
Emakumeak	100 %	100 %	100 %	0 %
Gizonezkoak	100 %	100 %	100 %	0 %
ATXIKIPEN-TASA	100 %	100 %	100 %	0 %
Emakumeak	100 %	100 %	100 %	0 %
Gizonezkoak	100 %	100 %	100 %	0 %

LANEKO OSASUNA ETA SEGURTASUNA

IKERLANeko prebentzio-zerbitzua Osartenen prebentzio-zerbitzu mankomunatuaren parte da. IKERLANek laneko osasuna eta segurtasuna kudeatzeko sistema bat du (SGSST), Garatuz ereduan oinarritua, Osartenek garatua. Eredu horrek ISO 45001 arauaren eskakizunak integratzen ditu.

Kanpoko agente espezializatu batek aldian-aldian ikuskatzen du prebentzio-araudiaren betetze-maila. IKERLANek lortutako emaitzek adierazten dute prebentzio-legeriarekiko atxikimendu-maila egokia dela.

IKERLANeko Prebentzio Planean jasota dago SGSSTren irismena. Dokumentuan biltzen dira jarduera guztiak, egoitzak eta langile guztiak.

IKERLANek arriskuak prebenitzeko goi-mailako teknikari bat du (TSPRL) hiru espezialitateetan. Exekutiboki, prebentzio-arduradunaren mende, zeina zuzendaritza-kontseiluko kidea baita. Arriskuen ebaluazioak (EVR) Kudeaketa Sistema Integratuan definitutako metodologiaren arabera egiten dira. Arriskuen ebaluazioek IKERLANen dauden lantokiak, laborategiak eta lanpostuak hartzen dituzte kontuan. Gainera, IKERLANen garatzen den proiektu bakoitzak, hasierako fasean, dagokion arriskuen ebaluazioa du.

Identifikatutako arrisku bakoitzeko balorazio bat egiten da, eta, behar izanez gero, prebentzio-neurrien proposamen bat. Neurri horiek planifikatuta eta lehenetsita daude. Neurri horiek ezarrita, arriskua gauzatzea eta antzeko egoerak errepikatzea saihesten da.

IKERLANeko Prebentzio Planak berehalako edozein arriskuren aurrean jarduteko eta komunikatzeko modua jasotzen du. Plan horrek laneko intzidentziak ikertzeko erabiltzen diren prozesuak deskribatzen ditu, arriskuak identifikatzeko eta haiei lotutako arriskuak ebaluatzeko prozesuak barne, eta laneko segurtasuna eta osasuna kudeatzeko sisteman beharrezkoak diren hobekuntzak ezartzeko ekintza zuzentzaileak zehazten ditu.

Laneko osasun-zerbitzuak

Osarten Prebentzio Zerbitzu Mankomunatuak giza baliabide tekniko nahikoa ditu IKERLANen osasuna zaintzeko jarduerak egiteko. 2025ean, 115 azterketa mediko egin ziren guztira.

Langileeen prestakuntza

IKERLANek Harrera Plan bat du, beharrezko laneko osasun eta segurtasun kontzeptuak biltzen dituen. Horrez gain, badira ekintza espezifikoak prestakuntza jakin bat behar duten pertsonak trebatzeko, bai teknikoki, bai jarduera modu seguruan egin dezaten.

Gainera, urtero, IKERLANek prestakuntza-katalogo bat du, hainbat prestakuntza-pilulaz osatua, IKERLANeko langileen zeharkako gaitasunak garatzeko.



Langileen osasuna sustatzea

2021ean abiatu zen Zaindu programa, ongizatearen, autozaintzaren eta erregulazio emozionalaren garrantziaz ikuspegi holistiko batetik (gorputza, burua eta emozioa) formatzea eta kontzientziaztea helburu duena.

Programa hau abian jarri zenean, **doako zerbitzu psikologiko** bat jarri zen langileen eskura, beraientzat eta beren senideentzat, urteko 365 egunetako 24 orduetan. Programak prestakuntza batzuk eskaintzen ditu, eta horien helburua da denbora kudeatzeko tresnak ematea, oreka pertsonala bermatzeko eta energiari eta erregulazio emozional egokiari eusten laguntzeko. 2025. urtean, prestakuntza hauek eman dira, besteak beste: gidatze seguruaren ikastaroa, gidatzean langileen segurtasuna areagotzeko, autozaintzaren eta ongizate emozionalaren ikastaroa eta bizkar osasuntsuaren ikastaroa.

2024an, fisioterapia digitaleko zerbitzuarekin jarraitu zen *-Fisify-*, non pertsonak eskura duten plataforma informatiko bat, ariketa pertsonalizatuen programekin min zehatzak arintzeko, gune espezifikoak saihesteko edo indartzeko, bai eta ongizate fisikoa hobetzeari lotutako ariketa orokorren katalogo bat ere.

Zaindu programaren barruan, 2025ean, eguneroko zaintzaren planteamendu jarraituago baterantz eta erantzukizun pertsonalago baterantz jotzea planteatu da. Planteamendu hori datozen urteetan garatuko da, **bizimodu osasungarriak sustatu eta erraztera bideratutako ekintza berriekin**, jarduera fisikoa, atsedena eta nutrizio egokia sustatzen dutenak eta pertsonen energia eta osasun fisiko eta emozionala mantentzen laguntzen dutenak lanean, etxean eta beren inguruneetan. Horretarako, prestakuntza-pilulak, plan pertsonalizatuak eta ariketa praktikoak planteatu dira autozaintzan aditua den Lourdes Tomás doktorearekin lankidetzan.

ISTRIPUAK	2025	2024	2023	BARIAZIOA 2024-2025 (%)
LAN EGINDAKO ORDUAK	581.253,19	582.825,50	556.030,75	% -0,27
Emakumeak	164.058,82	173.135,50	164.304,95	% -5,24
Gizonezkoak	417.064,87	409.690,00	391.725,80	% 1,8
LANEKO BAJARIK GABEKO ISTRIPUAK	2	1	1	+1
Emakumeak	2	0	0	+2
Gizonezkoak	2	1	1	+1
LANEKO BAJA DAKARTEN ISTRIPUAK	1	1	2	0
Emakumeak	0	0	0	0
Gizonezkoak	1	1	2	0
LANEKO BAJA DAKARTEN IN ITINERE ISTRIPUAK	2	0	0	+2
Emakumeak	0	0	0	0
Gizonezkoak	2	0	0	+2
JARDUNALDI GALDUAK	41	9	52	% 355,56
INTZIDENTZIA-INDIZEA	2,92	2,9	5,88	- %
LARRITASUN-INDIZEA	0,056	0,01	0,09	% 357,18
GAIXOTASUN PROFESIONALAK	0	0	0	% 0
LAN-ISTRIPU BATEK ERAGINDAKO LESIOEN ONDORIOZKO HERIOTZAK	0	0	0	% 0
LAN-ISTRIPUAGATIKO LESIO BATEN ONDORIOZKO HERIOTZA-TASA	0	0	0	% 0
LAN-ISTRIPUEK ERAGINDAKO ONDORIO HANDIKO LESIOAK (HERIOTZAK SARTU GABE)	0	0	0	% 0
LAN-ISTRIPUEK ERAGINDAKO ONDORIO HANDIKO LESIO-TASA (HERIOTZAK SARTU GABE)	0	0	0	% 0
LAN-ISTRIPUAGATIKO LESIOAK, ERREGISTRA DAITEZKEENAK	0	0	0	% 0
LAN-ISTRIPUAGATIKO LESIO-TASA, ERREGISTRA DAITEZKEENAK	0	0	0	% 0
ISTRIPU-ARRAZOI NAGUSIAK	Autoa	Despistea	Ezustekoa	
ABSENTISMO-TASA	% 2,28	% 5,82	% 5,47	% -60,98
ABSENTISMO ORDUAK	13.241,75	33.938,50	31.974,50	% -60,98

HARREMAN SOZIALAK

Estatutu Sozialak, Barne Araudia eta lan-arauak dira IKERLANen gizarte-harremanetarako erreferentzia-esparru orokorra.

Bazkide guztiek Batzar Nagusian onartutako dokumentua dira Estatutu Sozialak, eta kooperatibaren xedapen orokorrak, bazkide-motei buruzkoak eta haien eskubide eta betebeharrak zehazten dituzte. Kooperatibaren erregimen ekonomikoa eta egitura organikoa ere jasotzen ditu.

Barne Araudia ere Batzarrean onartzen da.

Batzorde Betearazlearen erabakiz ezartzen dira lan-arauak. Horietan, egutegitik hasi eta gizarte-harremanen xehetasunetaraino definitzen dira, egunerokoa modu koherente eta objektiboan kudeatu ahal izateko.

Bazkideek aldaketa-proposamenak aurkez ditzakete, eta Batzorde Betearazleak aztertu eta onartu edo baztertu egingo ditu. Beti ere proposamenak egin dituztenei gaitzespena justifikatu eta azalduz.

Lan-esparrutik harago pertsonen arteko harremana sustatzeko, ekitaldi parte-hartzaileak antolatzen dira, hala nola, elkarte eguna, herri kirolak, argazki-lehiaketa eta askotariko jarduera ludikoak.

FORMAKUNTZA

Formakuntza eragin handiko jarduera da IKERLANen jardueran. Pertsonen gaitasunen kudeaketa eta formakuntzaren kudeaketa funtsezkoak dira karrera profesionalak behar bezala garatzeko, bai eta ezagutzaren kudeaketaren oinarria ere, gero jarduera profesionala garatzeko erabiliko dena.

Hori dela eta, IKERLANen azken helburua da langileak erreferentziako profesionaltzat hartzea enpresa bezeroek eta merkatuak. Horretarako,

formakuntza-programa oso bat du, bai gai teknikoetan, bai zeharkako gaitetan (gaitasun orokorrak).

Formakuntza-ekintzak proposatzerakoan, formakuntza-jatorri hauek hartzen dira kontuan:

Formakuntzaren jatorria

Formakuntza espezifikoak	Helburuak eta proiektuak	Gaitasunen profila
Zeharkako formakuntzak	Arriskuen prebentzioa	Garatzen
Arau-aldaketak	Interes pertsonalagatiko formakuntza	Aurreko urteko formakuntza atzeratuak
Ibilbide profesionalak	Ezagutzaren kudeaketa eta balioaniztasuneko matrizeak	Sartu berriak

Jarraian, 2023an, 2024an eta 2025ean sailkapen profesionalaren arabera izandako batez besteko formakuntza-orduak jasotzen dira.

FORMAKUNTZA-ORDUAK GUZTIRA, SAILKAPEN PROFESIONALAREN ARABERA	2025	2024	2023	BARIAZIOA 2024-2025 (%)
ZUZENDARITZA	31,5	109,50	46,25	% -71,23
ZERBITZU OROKORRETAKO ARDURADUNA	185,5	167	224,25	% 11,08
JAKINTZA ALORREKO ARDURADUNAK	71,5	231,75	220,75	% -69,15
ESPEZIALIZAZIO LANTALDEKO ARDURADUNA	544,75	572,50	567,25	% -4,85
IKERTZAILEAK	4.209,50	3.619,25	4.577,25	% 16,31
IKERTZAILE DOKTOREGAIA	228,75	116	129	% 97,20
TEKNIKARIAK ETA ADMINISTRARIAK	501	650,25	679	% -22,95
GUZTIRA	5.772,50	5.466,25	6.443,75	% 5,60
Batez besteko formakuntza-orduak langileko	16,86	16,13	18,62	% 4,52

Formakuntzaren arloan, IKERLANeko langile bakoitzaren batez besteko prestakuntza-orduak % 0,73 igo dira 2024arekin alderatuta. Datu orokorra antzekoa bada ere, 2025ean arreta berezia jarri da ikertzaileen formakuntzan, erakundeko talderik handiena baita, eta doktoregaien artean igoera txiki bat izan dela ikusi da, erakundeak antolatutako zeharkako prestakuntzetara joateko aukera eman baitie.

Gainera, IKERLANek kooperatiba gisa IPDK du, aurrekontu-partida gehigarri bat, langileek interes pertsonalagatik egin nahi dituzten formakuntzez arduratzeko, baldin eta prestakuntza horiek ez badaude langilearen egungo lanpostuarekin lotuta.

BERDINTASUNA ETA DISKRIMINAZIORIK EZA

Giza Kapitalaren osotasuna eta kalitatea defendatzeko, IKERLAN 2017an atxiki zitzaion Gipuzkoako Foru Aldundiaren Etorkizuna Eraikiz ekimeneko Berdintasun eta Kontziliazio proiektuari, eta 2018tik Kontziliazio arduratsuaren aldeko enpresen Erantzunkide sareko kide da. 2023az geroztik, IKERLAN "Emakumeak zientzian" sarearen parte ere bada. Sare horren helburua da emakumeek zientzian duten jarduera ikusaraztea, jarduera zientifiko-teknikoei egozten zaizkien rol maskulino tipikoak haustea eta neskatoek eta nerabeek karrera zientifikoak aukera ditzaten sustatzea.

2019an, IKERLANen Berdintasun Batzordea sortu zen. Organo aholku-emaile bat da, partaidetzazkoa, barneko organo eta kolektiboen osaera duena, eta berdintasuna bultzatzeko ekintzak dinamizatzea eta gainerako organoei gai horretan aholkuak ematea du helburu.

IKERLANen Berdintasun Planak emakumeen eta gizonen arteko tratua- eta aukera-berdintasunaren arloko politikak eta helburuak jasotzen ditu. Neurri horien xedea da sexuan oinarritutako edozein laneko diskriminazio -zuzeneko edo zeharkakoa- eragozteko, batez ere, enplegua lortzeko sisteman, sailkapen profesionalean, lan-formakuntzan, sustapenean, ordainsarrietan eta lan-denboraren antolaketan, bai eta norberaren,

laneko eta familiaren bizitza bateragarri egitean ere.

Berdintasun Planaren barruan, IKERLANek emakume eta gizonen arteko aukera-berdintasunari buruzko egoera-diagnostiko bat prestatu du. Diagnostiko hori aldian behin berrikusi eta eguneratzen da, dauden politikak hobetzeko eta proposatutako helburuak zenbateraino bete diren egiaztatzeko.

2024an, 2024-2028 Genero Berdintasunerako Plan berri bat ezarri zen, eta orain plan horretan gaude, epe horretan aurrera eraman beharreko erronkak, helburuak eta ekintzak ezarriz.

IKERLANen helburu nagusietako bat da duintasuna eta sexuagatiko diskriminaziorik eza errespetatzen diren lan-ingurunea finkatzen jarraitzea. Hala, gatazkak kudeatzeko protokolo bat egin du, eta pertsonen arteko gatazka-egoerak prebenitzeko eta tratatzeko printzipio argi eta eraginkorrak ezartzen ditu. Protokolo honen helburua da IKERLANi eta bere langileei laneko jazarpeneko gatazka-egoerak kudeatzen lagunduko dien prozedura bat izatea, protokolo horiek martxan jartzen dituzten pertsonen intimitatea, konfidentzialtasuna eta babesa bermatuz. 2025ean ez da aktibatu gatazkak konpontzeko protokolorik erakundean.

IRISGARRITASUNA

Instalazioetarako irisgarritasuna hobetzeko etengabeko konpromisoan, IKERLANek azken urteetan egindako berrikuntza guztietan aintzat hartu ditu mugikortasun urriko pertsonak. Hala, gaur egun, IKERLANeko instalazioetan gurpildun aulkia behar duten pertsonak sar daitezke, beren mugikortasuna bermatuz.

Era berean, desgaitasuna duten pertsonentzako aparkaleku-plazak daude instalazio guztietatik hurbil.

Funtsezko balio eta printzipioetako bat da diskriminaziorik gabeko ingurunea izateko IKERLANek duen konpromisoa, errespetua eta aniztasuna sustatzen dituen.



04. Giza eskubideen errespetuari buruzko informazioa

IKERLANek giza eskubideak sustatzen eta errespetatzen ditu, bere kooperatiba-kulturaren eta gizartearekiko konpromisoaren oinarritzko balio gisa, eta tresna eta kanal egokiak ditu bere jardura egitean giza eskubideak errespetatuko direla bermatzeko.

IKERLANek, kooperatiba den aldetik, honako balio hauek aplikatzen ditu: autolaguntza, erantzukizuna, demokrazia, berdintasuna, ekitatea eta elkartasuna. Forma juridiko hori, izatez, Giza Eskubideen Deklarazio unibertsala inspiratzen duten printzipioen anbizio handiko garapen praktikoa da; zehazki, gizaki guztiak berdinak dira duintasunari eta eskubideei dagokienez.

Eredu kooperatiboak, bere gobernantza-sistematik bertatik, gardentasuna bermatzen du erabakiak hartzean, kudeaketa arduratsuan eta bazkideen aurrean kontuak ematean. Eredu horrek ezaugarri hauek ditu: pertsonak erabaki-organoetan parte hartzen dute, eta transbertsalak dira konposizioan, horrela errespetuan, ekitatean eta erantzunkidetasunean oinarritutako antolaketa-ingurunea bultzatuz.

Giza Eskubideekiko konpromisoa IKERLANek bere ingurune sozialarekin duen harremanera ere hedatzen da. Kooperatiba den aldetik, erakundeak balore eta filosofia jakin batzuk ditu gidari, interes kolektiboa lehenesten dutenak banakakoaren aurrean, erabakiak modu parte-hartzailean eta arduratsuan hartzea sustatzen dutenak eta emaitzak berrinbertitzea bultzatzen dutenak gizartearen onurarako.

BEHAR ADINAKO ARDURA GIZA ESKUBIDEEN ARLOAN

IKERLANek Giza Eskubideekiko errespetua integratzen du bere azterketa-prozesuetan eta erabakiak hartzeko prozesuetan. 2025eko ekitaldirako egindako materialtasun-azterketaren esparruan, giza eskubideetan izan dezakeen eragina ebaluatu da, jardura-sektorea, jardura-eremu geografikoa eta erakundea elkarlanean ari den zentro eta erakundeen izaera kontuan hartuta. Azterketa horren ondorioz, ez da identifikatu giza eskubideak urratzea eragin dezakeen egoera sortzeko arrisku nabarmenik.

IKERLANek komunikatzeko, parte hartzeko eta ordezkatzeko barne-kanalak ditu. Kanal horiei esker, bazkideek eta langileek giza eskubideen errespetuarekin zerikusia duen edozein kezka edo egoera adieraz dezakete, kooperatiba-ereduaren printzipioekin eta indarrean dagoen araudiarekin bat etorritik.

2025eko ekitaldian, ez da erregistratu eta kudeatu Giza Eskubideen urraketarekin lotutako gertakari, erreklamazio edo jarduerarik.

Ez da arrisku garrantzitsurik identifikatzen balio-katean, jardueren izaeragatik eta eremu geografikoagatik.



05. Ustelkeriaren, eroskeriaren eta kapital-zuritzearen aurkako borrokari buruzko informazioa

ETIKA, OSOTASUNA ETA ENPRESA-JOKABIDEA

Negozioetan etikarekin, zintzotasunarekin eta jarrera arduratsuarekin duen konpromisoaren esparruan, IKERLANek, kooperatiba den aldetik, gardentasuna bermatzen du erabakiak hartzean, bai eta kudeaketa-prozesuetan eta bazkideen aurrean kontuak ematean ere. Konpromiso hori gobernu korporatibo onaren printzipioen eta erantzukizunera eta iraunkortasunera bideratutako kudeaketa-eredu baten bidez egituratzen da.

Printzipio horiei buruzko informazioa gardentasunaren atari korporatiboan dago eskuragarri.

<https://www.ikerlan.es/eu/gardentasun-legea>

ARRISKU PENALAK PREBENITZEKO ETA BETETZEKO SISTEMA

IKERLANek araudia betetzeko sistema bat du (*Compliance*), delituak prebenitzeko eta, hala badagokio, delituak gauzatzeko arriskua nabarmen murrizteko. Sistema horrek, besteak beste, elementu hauek ditu oinarri: *Compliance*-ren eskuliburu bat, zigor arloko betetze-politika bat, jokabide-kode bat, kanal etiko bat eta Betetze Batzorde bat. Horri esker, jarduera-esparru koherente bat ezartzen da, enpresa-legezotasunaren eta -etikaren printzipioekin bat datorrena.

Halaber, erakundeak bere interes-taldean eskura ditu kanalak, komiteak eta tresnak, eta, horien bidez, kontsultak edo komunikazioak egin daitezke eredu bat betetzeari, arriskuak prebenitzeko eta betearazteko jarduera-printzipioei eta ustez legez kontrakoak edo delituzkoak diren jokabideekin lotuta egon daitezkeen bestelako barne-politikei eta arau profesionalei buruz.

2024ko ekitaldian, eta txosten honen epean operatibo jarraituz, Informaziorako Barne Sistema bat jarri zen martxan, IKERLANeko webgunearen bidez eskuragarri dagoena. Sistema horren bidez, araudia betetzearen arloko komunikazioak jaso eta kudeatzen dira.

IKERLANen ez da ustelkeria-kasurik detektatu, ez antolakuntzari dagokionez, ez langileei dagokienez, IKERLANeko kide gisa egiten duten lanean.

EMAITZAK ETA GERTAKARIRIK EZA

Aztertutako aldian, ez da ustelkeria-kasurik detektatu, ez antolakuntzari dagokionez, ez IKERLANeko langileei dagokienez beren jardunean. Era berean, IKERLANen parte-hartzea identifikatu den ekintza juridikorik ez da egin (ez egin gabe, ez amaitu gabe) lehia desleialarekin edo jarduera monopolikoen edo lehia askearen arloan aplikatu beharreko legeria urratzearekin lotuta.

ARAUDIA BETETZEA ETA ZEHAPENAK

Informatu den epean, IKERLANek ez du isunik edo zigor ez-monetario garrantzitsurik jaso, gizarte- edo ekonomia-arloan aplikatu beharreko araudia ez betetzeagatik.

06. Sozietateari buruzko informazioa

JARDUERAK GIZARTEAN DUEN ERAGINA

Gizarte-erantzukizunak lotura estua du IKERLANen kulturarekin, erakunde kooperatiboa den aldetik. Ingurunea garatzea eta gizartearen nahiz interes-talde guztien interesak eta ongizatea defendatzea lortu nahi da.

<https://www.ikerlan.es/eu/ikerlan-gara/inguruarekin-konprometituak>

Lankidetzaren kontzeptua gizartearekiko konpromisora ere hedatzen da. Kooperatiba izanik, balio eta filosofia hauek ditu gidari: interes kolektiboa lehenestea interes indibidualaren aurrean, erabakiak modu parte-hartzailean eta arduratsuan hartzea, eta irabaziak gizartean berrinbertitzea.

IKERLANek bere gain hartzen du gizartearen eta ingurunearen garapenean eta ongizatean duen erantzukizuna, eta enplegu egonkorra eta kalitatekoa sortzen du. Urtero soberakinen zati bat Heziketarako eta kooperatiba sustapenerako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako derrigorrezko kontribuziora (IPDK) bideratzen da. Kontuan izan ekitaldi bateko IPDK aurreko urteko kontuak ixtean ezartzen dela; hala, 2025ean xede horretarako bideratutako 39.321,60 € 2024ko ekitaldiko soberakinekin sortu ziren. Taula honetan ikus daiteke nola banatu den.

	2025	2024	2023
IKERLAN PROIEKTU SOZIALA	11.796,48 €	4.110,36 €	3.275,10 €
KONPROMISO SOZIALA DUTEN ELKARTEAK	23.143,72 €	6.850,59 €	5.458,50 €
BARNE-BANAKETA SOZIALA	4.381,40 €	2.740,24 €	2.183,40 €
GUZTIRA	39.321,60 €	13.701,19 €	10.917,00 €

2025ean IKERLANek erakunde hauei lagundu die, besteak beste:

- **SOS Arrazakeria Gipuzkoa.** IKERLANek Urretxindorra proiektuan parte hartzen du. Proiektu hori gizarte-bazterketa jasateko arriskuan dauden gazte aurre-nerabe migratzaileei zuzendutako gizarte-mentoretzari buruzkoa da.
- **Euskara.** Bere nortasunaren parte gisa, IKERLANek Euskalgintzaren Kontseilua, euskararen normalizazioa arintzea helburu duen elkarte, Kronika komunikazio taldea edo Nafarroa Oinez bezalako ekimenak babesten ditu.
- **Berdintasuna.** IKERLANen barruan zein gizartean berdintasuna modu proaktiboan bultzatzeko konpromisoaren barruan, Ekin Emakumeak edo Perkuneskak bezalako elkarteak babesten ditu. Elkarte feminista horren helburu nagusia musikaren bidez emakumeen ahalduntzea sustatzea da.
- **Kirola eta kultura.** Bere inguruko musika eta kirol erakundeekin kolaboratzen du, hala nola, Arrasate Musikal, Dragoi Gimnasia taldea, Arrasate pilota taldea, Urdantza Sincro Kirol Kluba (Gasteizen), Anakrusax (Durangaldeko saxofonistak), Santutxu Hockey edo Bergarako orkestra sinfonikoarekin, besteak beste.
- **Gizarte- eta osasun-elkarteak.** Zentro teknologikoak gaixoen bizitza hobetzera bideratutako zenbait elkarte ere babesten ditu, hala nola Aspargi (Gipuzkoako Parkinsonen Elkarte), Aspanovas (Bizkaiko minbizia duten haurren gurasoen elkarte) edo Iturrigorri Elkarlan (leuzemia duten pertsonak). Era berean, bere ekarpena egiten die elkarte sozialei, hala nola Gaztedi (nerabeei eta haien familiei laguntzeko) edo Nagusilan (nahi gabeko bakardade egoeran dauden adineko pertsonen laguntzeko).

IPDK funtsez gain, IKERLANek hainbat hezkuntza-eta kirol-ekimen ere babesten ditu, hala nola:

- Ointxe, herriko saskibaloia kluba.
- Mondragón C.F.
- First Lego League.
- Arrasate-Udalatx lasterketa.
- WOP Challenge lasterketa solidarioa, gaixotasun neurodegeneratiboen aurka borrokatzeko minutuak sortzeko.
- Enpresen lasterketa.
- Mundukide fundazioaren lasterketa solidarioa.



INFORMAZIO FISKALA

IKERLAN irabazi asmorik gabeko kooperatiba da. 2025eko ekitaldian, IKERLANek zerga aurreko mozkinari egindako ekarpena eta ordaindutako mozkinen gaineko zergei eta jasotako diru-laguntza publikoei buruzko informazio fiskala hauek dira:

	2025	2024	2023
ZERGA AURREKO MOZKINA	465.610 €	602.067 €	351.654 €
ORDAINDUTAKO MOZKINEN GAINEKO ZERGAK	4.782 €	3.171 €	0 €
JASOTAKO DIRU-LAGUNTZA PUBLIKOAK	13.633.152 €	13.818.257 €	14.039.522 €



07. GRI edukien aurkibidea

Informazio Ez-Finantzarioaren Egoera hau GRI Standarden arabera egin da (“referenced” aukera).

DESKRIBAPENA	GRI	ATALA	ORR.
GRI 2 - EDUKI OROKORRAK			
Erakundearen xehetasunak	GRI 2-1	Negozio eredua – Sozietateak eta produktuak	5
Txostenean sartutako erakundeak	GRI 2-2	Negozio eredua – Sozietateak eta produktuak	5
Txostenaren aldia, maiztasuna eta kontaktua	GRI 2-3	Sarrera	3
Jarduerak, balio-katea eta beste merkataritza-harreman batzuk	GRI 2-6	Bezeroak eta merkatuak	8
Langileak	GRI 2-7	Enplegua	26-29
Gobernantzaren egitura eta osaera	GRI 2-9	Gobernantzaren egitura eta osaera	7
Gobernu-organo gorenaren izendatzea eta hautatzea	GRI 2-10	Gobernantzaren egitura eta osaera	7
Gobernu-organo gorenaren lehendakaritza	GRI 2-11	Gobernantzaren egitura eta osaera	7
Garapen jasangarriaren estrategiari buruzko adierazpena	GRI 2-22	Balioak Ingurumen-kudeaketa	6 20
Konpromiso politikoak	GRI 2-23	Balioak Ingurumen-kudeaketa Giza eskubideak Etika	6 20 40 41
Konpromiso politikoak sartzea	GRI 2-24	Ingurumen-kudeaketa Etika eta betetzea	20 41
Inpaktu negatiboak konpontzeko prozesuak	GRI 2-25	Eraginak, arriskuak eta aukerak Ingurumen-kudeaketa	15 20
Elkarteetako afiliazioa	GRI 2-28	Aliantzak eta lankidetzak estrategikoak	11
Alderdi interesdunek parte hartzeko ikuspegia	GRI 2-29	Sarrera Materialtasuna	3 4
GRI 3 - GAI MATERIALAK			
Gai materialak zehazteko prozesua	GRI 3-1	Sarrera	3
Gai materialen zerrenda	GRI 3-2	Sarrera Materialtasuna	3 4
Gai materialen kudeaketa	GRI 3-3	Gaikako blokeen bidezko garapena	15
INGURUGIROA			
Erakundearen barruko energia-kontsumoa	GRI 302-1	Baliabideen erabilera jasangarria. Energia	25
Energia-kontsumoa murriztea	GRI 302-4	Klima aldaketa eta energia	24-25
Emisioak (1 eta 2 irismenak)	GRI 305	Klima aldaketa	24
Ur-isuriak, kalitatearen eta erabileraren arabera	GRI 306-1	Baliabideen erabilera jasangarria. Ura	25
Sortutako hondakinak	GRI 306-3	Ekonomia zirkularra eta hondakinen kudeaketa	24

DESKRIBAPENA	GRI	ATALA	ORR.
SOZIALA. LANEKO PRAKTIKAK			
Enplegua	GRI 401	Enplegua	26-29
LSO kudeatzeko sistema	GRI 403-1	Laneko osasuna eta segurtasuna	35
Arriskuak identifikatzea eta ebaluatzea	GRI 403-2	Laneko osasuna eta segurtasuna	35
Laneko osasun-zerbitzuak	GRI 403-3	Laneko osasuna eta segurtasuna	35-36
Langileen partaidetza	GRI 403-4	Laneko osasuna eta segurtasuna	35
LSOn formakuntza	GRI 403-5	Formakuntza. Laneko osasuna	35-37
Langileen osasuna sustatzea	GRI 403-6	Osasunaren sustapena	36
LSO kudeatzeko sistemaren estaldura	GRI 403-8	Laneko osasuna eta segurtasuna	35
Lan-istripuek eragindako lesioak	GRI 403-9	LSO adierazleak	36
Gaixotasun profesionalak	GRI 403-10	LSO adierazleak	36
Formakuntza eta garapen profesionala	GRI 404	Formakuntza	37-38
Aniztasuna eta aukera-berdintasuna	GRI 405	Enplegua Berdintasuna	27-28 38
Diskriminaziorik eza	GRI 406	Berdintasuna eta diskriminaziorik eza	38
ETIKA, GIZA ESKUBIDEAK ETA GIZARTEA			
Ustelkeriaren aurkakoa	GRI 205	Etika, osotasuna eta enpresa-jokabidea	41
Lehia desleiala	GRI 206	Etika eta betetzea	41
Bezeroaren pribatutasuna	GRI 418	Informazioaren pribatutasuna eta konfidentzialtasuna	19
Betetze sozioekonomikoa	GRI 419	Etika eta arauen betetzea	41
GRI EZ DIREN EDUKIAK			
Berrikuntza	-	Berrikuntza	18
Enpresa bezeroen beharretara egokitzea	-	Enpresa bezeroen beharretara egokitzea	17
Produktuen eta zerbitzuen kalitatea	-	Produktuen eta zerbitzuen kalitatea	16
Aliantzak eta lankidetzak estrategikoak	-	Aliantzak eta lankidetzak estrategikoak	10-11

Oharra: GRI adierazle jakin batzuk ez dira materialtzat edo aplikaezintzat hartzen, IKERLANek zentro teknologiko gisa duen jardueraren izaeragatik, egindako materialtasun-azterketaren arabera.

